

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2002ko abenduaren 27a / 523. zenbakia

20002
urteari
begiratu
BERGARA



**AZKARATE
AROSZTEGIA**

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3 BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 /
610 88 40 20



Arotz lanetan behar duzun guztia.

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behe.
BERGARA
Tel.: 943 76 18 93

OXIRONDO AZOKA



ARRAINDEGIA
German Lete. Tel.: 943 76 02 44



BERTAKO PRODUKTU BEREZIAK
Arantxa. Tel.: 943 76 04 86



MOXAL HARAGIA
Lurdes Barrutia. Tel.: 943 76 12 17



IZOZTUAK
Izotz. Tel.: 943 76 56 91



HARATEGIA
Bixain. Tel.: 943 76 26 98



OILASKOAK-URDAITEGIA
Mertxe. Tel.: 943 76 54 67



IKUZTEGIA
Ikuz. Tel: 943 76 50 61

**Zorionak
eta urte
berri on!**

KALEINKESTA/ Urtia bukatzera doa. Urte berrixari ze eskatuko zontsake?



MARIA JOSE SAGASTA
50 urte



PEDRO JAUSORO
45 urte



PANTXIKA ZUBIATE
80 urte



MAITANE AZKARATE
19 urte



MIREN ALBISTEGI
58 urte



BIXENTE OKINA
82 urte

Danon artian hobeto konpontzia, pakia. Lanik be ez deilla falta. Eta, azkenik, Galizian *Prestige* petroliuntziakin gertatutakua ez errepikatzea eta hanguen egoeria hobetzea.

Osasuna, dirua eta maittasuna. Eskatziarren... Eta betikua: danondako lana egotia eta munduan dagozen gatazka danak konpontzia, aurtengua oso urte txarra izan da-eta.

Osasuna eta pakia. Eta bixen bittartian, ondo pasatzea. Eta gero, ahal bada, ondo segitzia, oin arte moduan. Urte asko dauzkat, eta samurra ez da izango, baiña ...

Tipikua, ez? Osasuna eta maittasuna. Horreik die igual inportantienak. Eta, orokorrian, zera eskatuko neuke: urte berrixa bukatziar dagoena baiño txarra ez izatia.

Osasuna danondako. Hori-ze bihar dogu, gehixenbat. Eta oin arte moduan segitzia. Beste kontu bat, daren gatazka danak konpontzia eta Galiziako hori be ondo ataratzia.

Gaztiagua izatia; baiña zaila izango da hori... Osasunari emoten dotsat nik lehentasuna, eta pakiari, horren biharra daukagu-eta. Egoera gaitza bizi dogu azkenaldixan.

ETABARRUAN...

GAINBEGIRATUA	/3
URTEA DATUTAN	/4-5
ONENA ETA TXARRENA	/6-7
DATORRENA DATORRELA	/44-45
ERRETRATU ZAHARRA	/46

URTEARI GAINBEGIRATUA

Urtarrila	/8-11
Otsaila	/12-13
Martxoa	/14-15
Apirila	/16-19
Maiatza	/20-21
Ekaina	/22-27
Uztaila	/28-29
Abuztua	/30
Iraila	/32-35
Urria	/36-37
Azaroa	/38-41
Abendua	/42-43



HERRITARRENBERBAK



Olentzero, politx horrek

ELENA LAKA / Abokatua

Seguru asko aurten azkenengo urtia izango da Bergararik pasauko zarana. Datorren urtetik aurrera, playmobileko autopista inauguratzen dabeanian, Bergaran ez zara geratu be egingo, eta autopistan zihar juango diren auto guztixei moduan, herri honen izena bideko restop batena pentsatuko jatzu. Hortaz, burua jirata pasau baino lehen, aurten demaseko eskaria doiakizu.

Ai Olentzero, nik zine-exin bat bihar dot. Pelikula asko batera botatzen dabean horietako bat, barrixa, haundixa, argixekin, programazino on eta ugari batekin. Sikiera Bergaran ekartzen ez badoztazu, Arrasateko osaba-izeben etxian lagaidazu.

Eta Barbiren igerilekua, Olentzero. Orain dala urte asko ekarri zoztazun ahura apurtu egin jat, eta bitxartian ezebe barik nago. Premiazkoa da, eta mesedez, izan dadila asteko zazpi egunetan goiz eta arratsalde erabiltzeko horietakua.

Baitxa be bihar dot eskalestrixeko tranbia. Bailarako punta batetik bestera puntual juateko, kotxia alde batera lagarazten dotsuen horietakoa, Bilboko eskaparate batian ikusi nebanaren iguala.

"Elkarrizketarako gogua eta pakea, eta nor bere kabuz pentsatzeko gaitasuna"

Beste gauza bat umiek enkargatu doztena: educako txotxongiloak domeka arratsaldetarako. Eta akxionmanen zaharretxea aitxixandako, eta pinyonen etxebizitza merkexegoak hilobendako.

Eta beste gauza bat, hau ez dot telebitan ikusi, baina nunbait topatuko dozu, egin berba Errege Magoekin bestela: barre algara haundi eta etengabekoa, dibertitze-

ko gogua, lanaz bestelako mundua ikusteko ahalmena. Eta elkarrizketarako gogua, eta zentzua, eta pakea, eta nor bere kabuz pentsatzeko gaitasuna eta aukera. Hau dana saski batian eta erregalorako papela-rekin, mesedez.

Olentzero, aurten ez naiz betiko koloniarekin konformatuko. Ondo portau ala hurrengoan ez dotsut boturik emongo.



Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Amalia Aranburuzabala
Oxel Erostarbe
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe
Maddi Truxuelo

PUBLIZITATEA
Mireia Larranaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Elena Laka
Bergarako Udala Artxiboa

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila

Gipuzkoako
Foru Aldundia

Bergarako
Udala

Antzuolako
Udala

Elgetako
Udala

URTEA DATUTAN

2002 urte bukatzeaz dago eta era guztietako gertakariak albiste izan dira urtean zehar. Azken urteotan ohikoa denez, herriari buruzko hainbat datu jaso nahi izan ditugu

urtekarian, irakurleen curiositatea asetzeko asmoz. Urteari errepassoa ematen diogun ale honetan, horra hainbat datu, interesgarriak suertatuko zaizkizuelakoan.



LIBURU salduenak

EUSKARAZ

1. **SPrako tranbia**
Unai Elorriaga
2. **Lagun izoztua**
Joseba Sarrionandia
3. **Bost idazle**
Hasier Etxeberria
4. **Baina bihotzak dio**
Xabier Montoia

GAZTELANIAZ

1. **Es fácil dejar de fumar**
Allen Carr
2. **La abadesa**
Toti Martínez de Lezea
3. **Los refugios de piedra**
Jean M. Auel
4. **La reina del sur**
Arturo Pérez-Reverte



DISKO salduenak

EUSKARAZ

1. **Shin Chan**
Soinu banda
2. **Maren**
Kepa Junkera
3. **Nere ekialdean**
Benito Lertxundi
4. **Kuraia**
Kuraia

GAZTELANIAZ

1. **Corazón latino**
David Bisbal
2. **¿Qué pides tú?**
Alex Ubago
3. **The rising**
Bruce Springsteen
4. **La bella Lola**
Orfeón Donostiarra



FILM ikusienak

1. **Harry Potter y la piedra filosofal**
Chris Columbus
2. **El señor de los anillos**
Peter Jackson
3. **El hijo de la novia**
Juan Jose Campanella
4. **Juana La Loca**
Vicente Aranda
5. **Una mente maravillosa**
Ron Howard
6. **Spider-Man**
Sam Raimi
7. **Monstruos S.A.**
P. Docter eta D. Silverman
8. **Minority report**
Steven Spielberg
9. **American pie 2**
J.B. Rogers
10. **La caja 507**
Enrique Urbizu



BIDEO hartuenak

1. **Training day**
Antoine Fuqua
2. **Los otros**
Alejandro Amenabar
3. **El pacto de los lobos**
Christophe Gans
4. **El señor de los anillos**
Peter Jackson
5. **Destino de caballero**
Brian Helgeland
6. **Ni una palabra**
Gary Fleder
7. **El planeta de los simios**
Tim Burton
8. **Spy game**
Tony Scott
9. **El hijo de la novia**
Juan Jose Campanella
10. **A.I. Inteligencia artificial**
Steven Spielberg



AUTO salduenak

1. **Opel Astra**
19 auto
2. **Citroen Xsara**
14 auto
3. **Opel Zafira**
11 auto
4. **Citroën Xsara Picasso**
10 auto
5. **Opel Corsa**
10 auto
6. **Citroen C5**
10 auto
7. **Ford Focus**
7 auto
8. **Ford Mondeo**
5 auto
9. **Ford Fiesta**
4 auto

Autoen gaineko datuak:
2002-01-01 / 2002-10-31

EGUNKARI salduenak

1. El diario vasco
2. Gara
3. Egunkaria
4. Deia
5. Marca

ALDIZKARI salduenak

1. Pronto
2. ¡Hola!
3. Semana
4. Lecturas
5. Mia

Egunik BEROENA

2002ko ekainaren 17a

37°C

Egunik HOTZENA

2002ko urtarrilaren 12a

-3°C

Egunik EURITSUENA

2002ko urriaren 9a

47,9 L

BIZTANLE kopurua

15.093

Jaiotakoak

97

Hildakoak

96

Etorritakoak

239

Joandakoak


251

ALDEA

-14

laz baino 14 bizilagun gutxiago gara Bergaran, joan den urtean 15.107 bizilagun ginen-eta. Bestalde, goiko datuetan ikusten denez, jaiotakoak eta kanpotik herrira etorri direnak hil direnak eta kanpora joan direnak baino gutxiago izan dira aurten: 11 lagun gutxiago, hain zuzen.

2002ko urtarriletik 2002ko azaroaren 30era bitarteko datuak jaso ditugu.



Instalakuntza moderno eta guztiz erosoekin, gure bezeroek merezi duten kalitatezko zerbitzua eskainiz.

Ariznoa

HOTELA

Telesforo Aranzadi, 3
Tel. 943 761 846 - 943 761 847 Faxa: 943 761 848
20570 BERGARA - Gipuzkoa

Urtean JAIOTAKOAK

URTARRILA

- 3 Miren Alkorta Barrutia
- 6 Ainhoa González García
- 9 Maialen Verguizas Arroitauregi
- 18 Eider García Lete
- 27 Gorka Lazpiur Jauregi
- 28 Josu Larrañaga Águila

OTSAILA

- 11 Jon Etxaniz Zafra
- 14 Itsaso Anduaga Aiestaran
- 15 Josu Mendizabal Crespo
- 19 Xabier Alberdi Juaristi
- Ander Linazasoro Hernando
- 22 Julen Osinaga Fernández
- 26 Ainhoa Sánchez Rodríguez

MARTXOA

- 3 Irati Palacios Olamusu
- 6 Ander Gallastegi Iñarra
- Josu López Herrador
- 10 Olaia Arriola Pampin
- 12 Julen Arriola Gallastegi
- 14 Iker Ugarte Gabilondo
- 15 Priska González Sánchez
- 18 Unai Irizar Frago
- 17 Danel Gantxegi Kortabarria
- 22 Ainara Plata Colinas
- 23 Irati Iñarra Martín
- 31 Markel Barriobero Igarza

APIRILA

- 3 Mariñe Azkarate Palmitano
- 7 Malen Mondragón Aginagalde
- 12 Sergio Angulo Rubio
- 13 Unai Salillas Solaun
- 19 Leire Arieteleanizbeaskoa
- Toledo
- 21 Lier Dobao Cachafeiro
- 22 Amaia Alonso Albisua
- 23 Maitane Etxabarri Alberdi

MAIATZA

- 10 Julen Prieto Loidi
- 19 Oier Sánchez Lekuona
- 21 Ander Zengoitia Basauri
- 27 Olaia Irureta Jauregi
- Gorka Gómez Moreno

EKAINA

- 6 Maialen Goenaga Urkiola
- 9 Aimar Agirrebarrena Balzategi
- 12 Jone Moñux García
- 16 Endika Ugarte García
- 26 Xabier Azkargorta Linazasoro
- 27 Edit Miota Agirre
- 28 Oier Elortza Pairós
- Sara Balentziaga Galfarsoro
- 30 Iker Menor Madariaga

UZTAILA

- 3 Naira Aranburu Zabala
- Aimar Márquez Mendikute
- 9 Ibon Odriozola Elkorobereizabar
- 10 Malen Kalboetxeaga Garitano
- 11 Eneko Munarriz Bidegain
- Mikel Munarriz Bidegain
- Lara Agirre San Emeterio
- 17 Paula Ruiz de Eginio Fernández
- 20 Unai Ibarra Zubizarreta
- 22 June Díaz Díez
- 23 Ane Durana Aizpurua
- 25 Jokin Amurrio Sáez
- 28 Aitor Orbea Larrañaga
- 31 Mikel Pérez Etxeberria-Arteun

ABUZTUA

- 4 Haizea Núñez Izquierdo
- 9 Aitziber Monterroso Salas
- 12 Oier Garitano Laka
- 14 Lander Uribesalgo De la Fuente
- Josu Deza Ibarra
- Eder Osuna Larrañaga
- 15 Amets Macias Ormazabal
- 22 Miren Olaia Unamuno Uribetxeberria

- Uribetxeberria
- Unai Roige Dávila
- Alex Roige Dávila
- Malen Iglesias Larrañaga
- 23 Aroa Oiarzabal Puertas
- 29 Xabier Muruamendiaraz Basterra
- 31 Ander Albisua Muñoz

IRAILA

- 2 Yerai Navas Fernández
- 3 Asier Díaz Carriet
- 7 Ziortza Ibaibarriaga Bengoa
- 10 June Domenech Elkoro
- Alaitz Cid Arévalo
- 13 Naia Palomares Aranburu
- 16 Aritz Lazkano
- Muniategiandikoetxea
- 25 Martin Lete Dávila

URRIA


- 2 Maren Arealillo Labaien
- 10 Iker Barragan Rodríguez
- 15 Julen Ibarretxe Garitano
- 20 Iker Ortiz de Urbina Fernández
- 21 Alazne Olabarria Vicente
- 24 Amaia Lakuntza Lazpiur
- 29 Olaia Intza Zuazua

AZAROA

- 3 Ander Aranbarri Areitio
- Mikel Santorcuato Kapanaga
- 8 Ioritz Piñeiro García
- 10 Andrea Zabala Puerto
- 12 Aimar Basauri Larrion
- 16 Irati Albisua Moreno
- 24 Ekhi Lete Oiarzabal
- 28 Maitane Gallastegi Juan

ABENDUA

- 2 Maria Martínez Loiti
- Maria Bisquert Fernández
- Unai Aranguren Gallastegi
- 13 Yerai Zubia Gutiérrez



2002ko lehen umea

Miren Alkorta Barrutia izan zen 2002an Bergaran jaio zen lehen umea. Debagoieneko eskualde ospitalean jaio zen, urtarrilaren 3an, eta 3,450 kilo pisatu zuen. Irudikoa jaio zeneko argazkia da, eta Mirari ama-rekin dago. Aita, berriz, Iñigo du.

Urtean HILDAKOAK

URTARRILA

- 1 Felix Igartua Ugalde, 64 urte
- 12 Rosa Lazpiur, 94 urte
- 13 Matias Izukiza Zubizarreta, 69 urte
- Luciano Larrañaga Erostege, 87 urte
- 14 Ignacia Usandizaga Añorga, 66 urte
- 22 Mari Carmen Bilbao Arantzabal, 87 urte
- 25 Pablo Ibarra Iriondo, 90 urte
- 27 Ana Maria Martín Dávila, 88 urte
- 30 Candelaria Elortza Azkoaga, 92 urte

OTSAILA

- 4 Juan Ondarra Arantzabal, 77 urte
- 7 Jose María Camacho Jauregi, 85 urte
- Casiana Jauregi Laskurain, 97 urte
- 12 Juana Mujika Alustiza, 85 urte
- 13 Bernardina San Torcuato Lizarralde, 97 urte
- 15 Agustin Lizarralde Gisasola, 53 urte
- Ursula Rogel Antón, 87 urte
- 20 Benita Ojanguren Larrañaga, 95 urte
- 21 Teodoro Blanco Simues, 53 urte
- Pedro Azkarate Jauregi, 73 urte
- 28 Jose Aranburu Zumalakarregi, 66 urte

MARTXOA

- 1 Alberto Salas Durán, 51 urte
- 5 Dolores Benítez Sánchez, 85 urte
- 6 Nicasio Bilbao Igarza, 84 urte
- Javier Zubizarreta Mujika, 71 urte
- 7 Fernando Gardoki Mujika, 60 urte
- 8 Estefania Abasolo Aperribai, 89 urte
- 9 Alejandro Lopez de Subijana, 81 urte
- 16 María Sologaitoa Biain, 75 urte
- 13 Javier Gantxegi Iriondo, 67 urte
- 16 Juan Imaz Bastarrrika, 79 urte
- 19 Joaquin Urkizu Beitia, 62 urte
- 24 Asuncion Idarreta Sañudo, 87 urte
- 25 Valentin Ugalde Larrañaga, 94 urte
- Jesus María Arieteleanizbeaskoa, 62 urte
- 26 Ana Bueno Madrid, 90 urte
- Maria Luisa García Campo, 64 urte

APIRILA

- 1 Margarita Olabide Mujika, 94 urte
- 3 Modesto Sarasua Egia
- 15 Ines Lamarain Iturriaga, 89 urte
- 17 Isidro Manzano Madinabeltia, 75 urte
- 19 Federico Garitano Elkoroiribe, 77 urte
- 20 Angel Saizar Elkoroiribe, 84 urte
- 21 Jose Luis Miner Arrieta, 40 urte
- 26 Felipe Villa Herrero, 83 urte
- 29 Serafina Agiriano Kortazar, 79 urte
- 30 Agustin Iñarra Osa, 88 urte

MAIATZA

- 5 Martina Irazola Altuna, 86 urte
- 7 Ambrosio Laskurain Askasibar, 79 urte
- 9 Jose Gorrotxategi Lizarralde, 74 urte
- 10 Maria Josefa Ganuza Lardizabal, 89 urte
- 12 Felix Igartua Orbea, 71 urte
- 14 Jeronima Agirrezabal Zangitu, 79 urte
- 15 Mari Carmen Larrañaga Agirrezabal, 73 urte
- 21 Maria Isabel Moreno Garrido, 61 urte
- 29 Jose Mari Biain Betoitze, 63 urte
- Julian Aiastui Igarzabal, 70 urte

EKAINA

- 2 Antonio Oregi Urriategi, 79 urte
- 6 Lucio Atxotegi Askasibar, 80 urte
- Jose Antonio Murugarren Rodríguez, 54 urte
- 13 Jesus Aizpiri Arrieta, 69 urte
- Rosa Loidi Gabilondo, 82 urte
- 14 Iñigo Osinaga Astigarraga, 46 urte
- 16 Ramon Solana Azkarate, 74 urte
- 18 Alejandro Lizarralde Alberdi, 92 urte
- 20 Clara Goikoetxea Madina, 92 urte
- Jesus Gallastegi Albizu, 76 urte
- 29 Kontxita Mujika Garmendia, 78 urte
- 30 Jesus Maria Hervás Rodríguez, 22 urte

UZTAILA

- 6 Juana Zabala Larrañaga, 86 urte
- 8 Luis Ezpeleta Iarza, 67 urte
- 15 Jose Maria Solaun Zubialdea, 75 urte
- 16 Ana Oregi Unzueta, 86 urte
- Casimira Dávila Algaba, 66 urte
- Luisa Agirrezabal Arrese, 105 urte
- 18 Josefa Molina Peñuela, 80 urte
- 19 Pilar Monzón Zurbano, 92 urte
- 20 Enrique Iburguren Aristegi, 92 urte
- Benita Egia Legorburu, 87 urte
- Mari Carmen Azkargorta, 83 urte
- 22 Imanol Larrañaga Telleria, 40 urte
- 26 Abencio Castelo Jiménez, 74 urte
- 30 Jose Jabier Rodrigo Urmeneta, 47 urte

ABUZTUA

- 6 Martin Luarizaristu Albisua, 81 urte
- Cirilo Berroia Etxaniz, 84 urte
- 16 Nagore Fernández Domínguez, 12 urte
- 19 Sabino Akizu Zezeaga, 67 urte
- 22 Jose Antonio Sarasola, 67 urte
- 23 Cruz Jauregi Mujika, 80 urte
- 25 Periko Romaratezabala Badiola, 74 urte
- 27 Felisa Balanzategi Idigoras, 92 urte
- Juan Mari Merino Mellado, 96 urte
- Antxonia Arregi Ereño, 85 urte
- 30 Maria Jesus Gisasola Azkargorta, 46 urte

IRAILA

- 3 Balbina Aierdi Iriondo, 82 urte
- Juliana Ruiz Ruiz, 76 urte
- 5 Pia Gantxegi Gallastegi, 90 urte
- 11 Roque Zubizarreta Lete, 78 urte
- Carmen Agirrezabal Zabaleta, 78 urte
- Jose Antonio Oruesagasti Flores, 75 urte
- 12 Juan Cruz Bengoa Azkarate, 69 urte
- 15 Maria Teresa Amasorrain Zenitagoia, 86 urte
- Melchor Alberdi Alberdi, 89 urte
- Marco Antonio Arévalo Tabares, 30 urte
- Rosario Ibañez Gabilondo, 66 urte
- 17 Mari Cruz Irureta Ibarria, 73 urte
- 20 Victoriana Macaria Herrera Corzo, 83 urte
- 23 Maximo Zangitu Gallastegi, 76 urte
- 30 Andres Ots Jiménez, 66 urte

URRIA

- 2 Angeles Zenitagoia Belar, 86 urte
- 3 Francisco Javier Garamendi Magro, 73 urte
- 8 Josu Mujika Gallastegi, 42 urte
- 14 Martin Casado Raya, 79 urte
- Andoni Olertza Telleriarte, 46 urte
- 15 Concepcion Larrañaga Gabilondo, 91 urte
- 17 Jose Maria Manterola Zulaika, 66 urte
- 28 Fernando Etxaniz Orbea, 80 urte
- 29 Juan Mujika Gorrotxategi, 74 urte
- 30 Itziar Arrieta Agirrebeña, 65 urte
- 31 Martin Beitia Astigarraga, 82 urte

AZAROA

- 1 Angel Madariaga Luarizaristi, 76 urte
- 9 Aurelio Bilbao Bagazgoitia, 83 urte
- 10 Josefa Egigazu Arregi, 102 urte
- Felix Garmendia Iriarte, 76 urte
- Eduarne Urzelai Osa, 36 urte
- 11 Eusebia Barriocanal Rueda, 86 urte
- 13 Antonia Gallastegi Larrañaga, 91 urte
- Matilde Galdos Aiastui, 79 urte
- 20 Jose Morales Garrido, 85 urte
- 28 Carmen Astigarraga Gabilondo, 95 urte
- 30 Demetrio Real Bustamante, 82 urte

ABENDUA

- 1 Felix Ormazabal Gabilondo, 91 urte
- 8 Antonio Sánchez González, 85 urte
- Jose Luis Blas de Pedro Arrieta, 55 urte
- 9 Rikardo Matxinbarrena Calvar, 81 urte
- 17 Josefa Juaristi Juaristi, 88 urte
- 18 Dorleta Biain Bilbao, 44 urte

Jaiotako eta hildako gaineko datuak: 2002-01-01 / 2002-12-12



HORTZ KLINIKA

Silvana Caviglia doktorea

Simon Arrieta plaza 3, 2. Tel. 943 76 38 54 BERGARA


- Odontologia orokorra
- Implanteak
- Kirurgia
- Ortodontzia

ASEGURUAK

- Pakea
- Aegon
- Ibersalud Globalcard
- Asepeyo
- Mapfre
- Muface Caja Salud
- Fremap
- Sermesa

ONENA ETA TXARRENA

2002. urtea amaitzeaz dago, eta laster urte berriari ongiatorria egingo diogu. Horrelakoetan, balantzea egiteko ordua izaten da. Urteko 365 egunek gauza asko ekarri dizkigute, era guztietakoak, logikoa denez: pozgarriak batzuk, zoritxarrekoak beste hainbat. Herriko hainbat lagunengana jo dugu, euren iritziz urteak eman dituen gauzarik onena eta txarrenea zein diren jakiteko.



MARTIN GARITANO
Kazetaria

↑ GAIXOTASUN LARRIEN
ikerketan -hiesa edo minbizia, esate baterako- izan diren aurrerapen zientifiko garrantzitsuak dira, nire ustetan, urteak eman duen gauza positiboetako bat.


↓ EZKER ABERTZALEA
espainiar legalitatetik kanpo utzi dutela da urteak eman duen gauzarik txarrenea. Eta legalitatetik kanpo lagatze horrek eragin duen eta eragiten ari den egoera.



AMAIA EPELDE
Jarduneko Errefortzu Taldeko burua

↑ 'PRESTIGE' PETROLIONTZIA-
rekin gertatutakoa hain hondamendi latza izanik, hainbat pertsonaren borondate ona utzi du agerian. Galiziakoez gain, kanpotik joandako jende ugari ere aritu da boluntario gisa.

↓ 'PRESTIGE' PETROLIONTZIA-
rekin gertatutakoa; batez ere, agintarien aldetik izan den kudeaketa eta aurreikuspen eskasa aipatuko nuke. Batik bat, hondamendiari aurre egiteko orduan izan den ezkutukeria.



LANDER JUARISTI
'Astindu' aldizkariko kidea

↑ ELKARLANA FALTAN SUMATU,
eta herriko hainbat kolektibo elkarrekin lan egiten hasia oso positibotzat jotzen dut. San Juan Sua, Herri Mugimenduaren Hamabostaldia edo txosna gunearen antolaketa, esaterako.

↓ IRAILAREN 11KOAREN
ondoren, AEBak eta haien aliatuak (Espainia barne) inposatzen ari diren ideien zapalkuntza: "Guztiak balio du gaizkia-ren kontra" ideian oinarrituta, gainera.



MAITE AURREKOETXEA
Musika Eskolako Orkestrako zuz.

↑ NAZIOARTEKO PRESIOAK
Ameriketako Estatu Batuek bere gerra partikularrei (Iraken kontra, adibidez) ekitea eragotzi du. Baina oso zaila egiten zait albiste positiboren bat nabarmentzea.


↓ GALIZIAKO HONDAMENDIA,
Prestige petroliontzia-rekin gertatutakoa, denboran gertu dagoena. Euskadin gerta zitekeela pentsatzea ikaratzekoa da. Bereziki arrantzaleen egoera penagarria da.



RUFINA OLASAGASTI
Udaleko Kultura gestorea

↑ BATASUNA LEGEZ KANPO
lagatzearen aurka eta oinarritzko eskubide batzuk murriztearen aurka ekainaren 15ean Bilbon egindako manifestazioa, alderdi, sindikatu eta beste askok bultzatua.


↓ IAZ, IRAILAREN 11N,
AEBetan izandako eraso tamalgarriak aitzakiatzat hartu eta Bushek eta hura bezalakoek mundua menderatzeko egiten duten terrorismoa: Irak, Palestina, Afganistan...



DAVID AZURZA
Bergarako Orfeoiko zuzendaria

↑ GAUZA PERTSONALA AIPATU
nahiko nuke. Bakarlarri bezala zein taldeetako zuzendari bezala oso urte polita izan dela uste dut. Hainbat proiektu eraman ditugu aurrera, eta proiektu onak, gainera.

↓ GAUZA TXAR UGARI GERTATU
dira urtean, eta horien artean bat aukeratu beharrian, oro har, gizakion jarrera aldatu beharra dagoela aipatuko nuke. Entzuteko ohitura galdu egin dugu, eta landu egin beharko genuke.



JON LETURIA
Harakinen elkarteko presidentea

↑ PENTSATZEN ARITU NAIZ
baina gauza gutxi ikusten ditut onak urtean barrena. Ezer aipatzearen, denetariko hondamendien ondoren hartu izan diren neurriak; nahiz eta gertatu ondoren izan.

↓ PRESTIGE UNTZIARENA
aipatuko nuke. Hondamendia ikaragarria izan da; kalteak izugarriak eta kaltetuak ere ugari. Gainera, kalte horien ondorioak denbora luzez sufritu beharko dituzte.



Ibargarai 22-behea
Tel.: 943 764 848
943 762 587
Faxa: 943 760 327
20.570 BERGARA



IÑIGO URRUTIA
'DV'-ko kazetaria

↑ EGOERAK HOBERA
Egingo du nahitaez. Gure inguruan zein mundu mailan egoera hain txarra izanik, irteera bat egon behar derrigor. Jendea ez da politikoei uste bezain gauzaeza.

↓ KLASE POLITIKOAK
herritarrekiko duen jarraera. Tontotzat hartzen gaituzte Euskadiko gatazka, Galizian *Prestige*-ren gertatutakoa edo irailaren 11ko ondorioekin. Egia ezkututzen digute askotan.



OIHANA GARMENDIA
Eskubaloien entrenatzailea

↑ EZ DAGO EZER ONIK
goraipatzeko aurten. Sentitzen dut ezkorra izatea, baina ezer positiboa nabarmentzeko orduan, ez zait ezer bururutzen. Ez dut uste nabarmentzeko moduko albiste onik gertatu denik.


↓ MUNDU MAILAKO EGOERA
gero eta txarragoa dela dirudi. Politika, ekonomia edo gizarte mailan albiste txarrak baino ez dira gertatzen, han eta hemen. Oso urte txarra izan dela iruditzen zait.



MARIAS MUXIKA
Komite Internazionalistak

↑ GLOBALIZAZIOAREN AURKA
ari diren giza mugimenduak goraiatu nahi nituzke. Gaurko egoera aldatzeko lagungarri izango da haien borroka. Bestela, zaila izango da egoerari buelta ematea.

↓ AEB-EK HARTUTAKO JARRERA
irailaren 11ren ostean. Munduko jaun eta jabe balira bezala dabilta estatubatuarrak, Europaren konplizitatearekin. Horren ondorioz, Palestinan edo Iraken egoera larritzen ari da.



IÑAKI SAN JOSE
BKEko presidentea

↑ SAHARATIK EKARRITAKO
mutiko horri Crucesen egin dioten ebakuntzak agerian uzten du gure gizartean solidaritatea posible dela. Hilzorian zegoen, eta ebakuntzaren ondorioz aurrera egingo duela dirudi. Txalogarria.

↓ UMEAK GOSEZ HILTzea
gaurko egunean lotsagarria iruditzen zait. Globalizazioaren ondorioz, badirudi herrialde pobreak artean pobreago direla, eta umeak sufritzen ikusteak biziki amorratzen nau.



VIRGINIA IMAZ
Oihulari Klown taldekoa

↑ AMINAREN KASUA
Internetetik jarraitu nuen, eta nazioarteko presioak adulerioagatik Nigerian harrikatua izatea eragotzi zuen. Itzaropen istorioa da, mundua aldatzea posible dela erakusten duena.

↓ MOSKUKO ANTZERKI ARETOAN
gertatutakoa. Txetxeniar talde batek bahituta zituen ikuslearen erreskatea tragedia bihurtu zen, arma kimikoei eginko esperimenduak tartean. Gauza asko argitzeke geratu ziren.



MARIASUN PLAZAOLA
San Joxepeko idazkaria

↑ SAN JOXEPE ELKARTERA
mugatuz, gure arteko harmonia eta ekintzak aurrera ateratzeko kolaborazioa nabarmentzeko nituzke. Kultur Hamabostaldiarekin eta ikastaroekin arrakasta izan dugu aurten.

↓ MUNDUAN NAGUSI
den sufrimendua da niretako albisterik txarrena. Garai zaila bizi dugu eta elkar ulertzetik ez dagoela nabari da. Hala ere, gatazka ezberdinak gaintzeko itzaropena daukat.



AITOR MURUAMENDIARAZ
Tabernaria

↑ REALA AURTENGO
ligan egiten ari dena, albiste on bat nabarmentzearren. Oso zaila da zerbait pozgarria topatzea. Kirolari dagokionez, ea txuri-urdinek orain arteko boladari eusten dioten.


↓ EUSKAL HERRIKO GATAZKAK
txarrera egin du, eta argi dago kaleko jendearen esku dagoela konponbidea, politikoei hitz egin besterik ez dute egiten-eta. Bestalde, *Prestige* ontziarekin gertatutakoa lotsagarria izan da.



ARANTXA GOIKOETXEA
Mizpirualdeko gizarte laguntzailea

↑ SAFIYA HUSSAINI
Nigeriako emakumeari heriotza-zigorra atzera botatzea, Amnistia Internazionalaren kanpainaren ondorioz. Pauso handia da emakumeek jasaten dituzten egoera larriari aurre egiteko.


↓ ORAINDIK NIGERIAN
beste lau emakume daude harrikatze bidez heriotza-zigorra kondenatuta. Badirudi lasaitu egin garela Safiyarekin lortutakoarekin, eta axolagabetasun hori arriskutsua da.



IÑIGO ARREGI
EHEko kidea

↑ UDALBILTZAREN ESKUBIDEEN
Karta eta abenduan egin duten Nazio Txikien Konferentzia; izan ere, eskubideak gauzatzea helduz gero, Euskal Herriko gatazka politikoa gaintutako da.

↓ HIZKUNTZA ESKUBIDEAK
oraindik ere ukatu egiten zaizkigula aipatuko nuke. Adibide ugari ditugu, besteak beste, EAEko Euskararen Legeak betetzen ez dituenak edo Nafarroako Euskararen Dekretua.



IMANOL URZELAI
Aritzetako zuzendaria

↑ EUROAREN EZARTzea
izan da niretako albisterik onena. Europaren batasuna lortzeko aurrerapauso garrantzitsua izan da euroa. Europak bat egitea da azken hamarkadetakoa gertakizunik handiena.

↓ 'PRESTIGE' PETROLIONTZIAK
eragindako hondamen ekologikoa eta ekonomikoa etortzen zait burura, denon ahotan izan da eta azkenaldian. Hala ere, goseak eta gerrak ekartzen dituzten tragediak ere hor daude.

Servimasa

zorionak



eta urte berri on!

Haitz-lturri 4 • Posta kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 • Faxe: 943 76 07 49
20570 BERGARA (Gipuzkoa)

103 industrialdea
Tel.: 943 52 05 00 • Faxe: 943 51 57 57
20100 LEZO (Gipuzkoa)

URTARRILA



"Memoria trebatu beharra dago, eta badira hori hobetzeko teknikak"

RAQUEL BARGENILLA / PSIKOLOGOA
2002-01-11



"Gaur egun, ez dugu gure gorputza errespetatzen, eta osasuna kaltetzen dugu"

MIKEL PIKAZA / SUMENDIKO KIDEA
2002-01-18

HILEKO ESALDIA

"Edonork utz dezake tabakoa; berdin da zenbat erretzen duen eta erretzen jardun duen denbora"


LEIRE JAUREGI / PSIKOLOGOA
2002-01-25

HILEKODATUA

27

MIZPIRUALDE KONPONTZEN GASTATUTAKO MILIOIAK

Mizpirualdeko berritze lanak 2000ko urrian hasi ziren, eta aurrekontua 27 milioi pezeta ingurukoa izan zen. /2002-01-18



Bergarako Bandaren urteko lehenengo kontzertua berezia izan zen

Bergarako Bandak 2002. urteko lehenabiziko kontzertua urtarrilaren 20an eskaini zuen. Baina lehen kontzertu hura berezia izan zen; izan ere, zapatuan San Sebastian Eguna zela-eta, Bandako hainbat kidek, sukaldari jantzi eta guzti, danborrak hartu eta danborrada propioa eskaini zuten. Horrela, kontzertuari ukitu berezia eman eta bildutako jendea animatu zuten. /2002-01-25

ONGIZATE SAILAK ANTOLATUTAKO IKASTAROAK

↑ Gizon-emakumeek etxeko ardurak trukatzeko lantegia eta Osasunaren autogestio ikastaroa egin zituzten. /2002-01-11

ZAKARRONTZI GUTXI KRUIZ GALLASTEGI KALEAN

↓ Hainbat taberna daude bertan, eta jendearen joan-etorri horretan kalea nahiko zikin geratzen ei da. /2002-01-11

AIPAGARRI



MARTIN DE PEDRO
Mendizalea

Annapurnako Tourra egin zuen, hots, Annapurna mendia zeharkatzen duen ibilbidea; hamalau egunean egin zuen 200 kilometroko ibilbide hori. /2002-01-25



IÑAKI GALVO
Txirrindularia

Duranan jokaturako Espainiako Ziklokros Txapelketan, bederatzigarren, gazte mailan. Aurretik, Gipuzkoan eta Euskadin sailkatzea lortu zuen. /2002-01-18



ISABEL ARANTZABAL
Karmeldar erlijiosoa

Sor Nina bezala eza-gunagoa den ubertarrak ehun urte bete zituen. Vedrunatar karmeldarren artean zaharrena izateagatik omenaldia egin zioten. /2002-01-18



JOXAN ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

López Ojeda

Amillaga 25 • Industrialdea
Biltegia: 943 762 776 - 943 763 852
20.570 BERGARA (Gipuzkoa)



Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu

ATXEGA ARDOAK S.L.
Ortzaika auzoa
Tel.: 943 830 369
943 830 375
20.810 ORIO
(Gipuzkoa)

ELUSU ERAIKUNTZAK

- Era guztietako eraikuntzak
- Erreformak
 - Teilatuak
 - Sukaldeak
 - Bainuak
 - Fatxadak



Baserri eta jauretxeen
erreformetan
eta txaleten eraikuntzan
espezializatuta gaude

Ondo pasau denok!

Arruriaga 5
943 76 45 50 Faxa: 943 76 51 45



San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak





UDAL

EUSKALTEGIAK

Euskararentzat
bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz
argituko da noizbait
bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu
Herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak
dakarkiola geureari
osasuna

BERGARAKO UDAL
EUSKALTEGIA

Zabalotegi 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net

BILBO garraioak

Bergara-Bilbo eguneroko zerbitzua / Partikularrendako eta industriendako



Ortuibar pasealekua 7, 2-B
943 76 35 74 / 609 479 443

Urte berri on guztioi!

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENEAN
Argia saria irabazi zuen GOIENKARIAK

ARGIA saria irabazi zuen GOIENKARIAK, prentsa idatzizko arloan. Bere sailean, "proiektu berritzailea" zela azpimarratu zuten sariaren emaleek. /2002-01-25

► EUSKAL HERRIAN
Ikurrina legeztatu zutela 25 urte

Ikurrina legeztatu zutela 25 urte bete ziren, eta ospakizunak izan ziren Euskal Herri osoan. Gure ibarreko alkateek egindako lana gogoratu zen. /2002-01-19

► MUNDUAN
Euroa, moneta berria, azkenik indarrean

Urtea moneta berriarekin hasi zuten 300 milioi euroarrek. Euroaren balioa 166,386 pezetatan finkatu zuten. Pezetak martxora arte iraun zuten. /2002-01-01

HIRIGINTZA



Santa Ana ermita ondoko arkua ez botatzea erabaki zuten

Udala Errotalde ingurua konpontzeko helburuarekin, Santa Ana ermita ondoko eraikina botatzen hasi eta agerian geratu zen arkua XVI.mendekoa zela konturatu ziren. Hortaz, arkua bere horretan utzi, arkua luzitzeko ingurua txukundu eta Errotalde parkerako sarrera berria egiteko proiektua onartu zuen Gobernu batzordeak. Gastua 2002ko aurrekontuetan jaso zen. /2002-01-11

KIROLA

Manuel eta Plazaola Euskadiko Eskubaloi Taldearekin izan ziren

Arrate taldeko Mikel Plazaola eta Iñaki Manuel bergararrak Euskadiko kadete selekzioarekin izan ziren Espainiako Autonomia Arteko Txapelketan, Torreviejan. Euskadi bigarren izan zen. Bi jokalariek esperientzia oso positibotzat jo zuten Euskadirekin aritu izana. /2002-01-18

KULTURA

Guggenheimen Artea Ikasbide proiektua San Martin eskolan

Euskal Autonomia Erkidegoko bederatzi eskola publikotan jarri zuten Guggenheim museoak abian proiektua. Manu Muniategiandikoetxea pintore bergararra izan zen arduraduna, eta ikasleekin lankidetzan eskolarendako logotipoa sortzea zuten helburu. /2002-01-11

ASTURIASERA JOAN ZEN DOKTORETZA TESIA EGITERA /2002-01-11



NOELIA ALDAI
ELIKAGAIEN TEKNOLOGOA

"Tesiaren zati bat Irlandan egitea nahiko nuke"

Noelia ez da geldu egoten den horietakoa: Grezian, Irlandan... izan ondoren, urtarrilean, Asturiasera joan zen, tesia egitera. Baina haren asmoa da tesi zati bat Irlandan egitea.

INDUSTRIA

Itesak eta Felix Gabilondok Itesa Taldea eratu zuten

Itesa Talde sortu berriaren aurkezpena urtarrilaren 25ean egin zuten, Miguel Altuna Institutuan. Prentsaurrekoa Itesa Taldeko ordezkari Alex Barrusok eta Josu Jon Imaz Industria kontseilariak egin zuten. Eratze horren arrazoien eta ondorioen berri eman zuten. /2002-01-25

ERREPIDEAK

Zubiaurreko tunela adostutako epean bukatu zuten zulatzen

Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuak zehaztutako epean amaitu zuten, eta, era berean, indusketa lanak "gorabehera berezirik gabe" egin zituztela azaldu zuten. Zubiaurreko tunela 320 metro luze da, eta hura zulatze hainbát leherketa egin behar izan zituzten. /2002-01-18


KULTURA

Erakusleiho Lehiaketako sariak banatu zituzten

Udaleko ordezkariak Gabonetako Erakusleiho Lehiaketako sariak banatu zituzten, urtarrilaren 3an. Honako denda hauek jaso zituzten sariak: Nihika, Kili-ka, Kanela, Maya eta Gisasola, hain justu. Irabazle guztiek hogeita bosna mila pezeta eta oroigarri bana jaso zituzten. /2002-01-18



Aholkularitza fiskala eta kontablea



Bidekurutzeta 46-behea, esku. • Tel.: 943 763 353 • 20.570 BERGARA (Gipuzkoa)



**Sukaldeak. Horma armairuak.
Neurrira egindako altzariak.
Ateak eta leihoak. Arozlanak.**

Bergara ☎ 943 76 58 86 / 670 765 886

Urte berri on!!

OTSAILA



"Gure gizartean izugarri egin du gora loditasunak, eta oraindik goraka doa"

MIREIA ALBERDI / NUTRIZIONISTA

2002-02-15



"Palestinako gatazka izugarria da, eta Europak ez du ezer egiten"

THAMER BIRAWI / PALESTINARRA

2002-02-15



Amodiozko Gutunen X. Lehiaketa

Amodiozko Gutunen X. Berrigara Lehiaketako sariak San Balentin Egunean banatu zituzten. Ekitaldia kartzela zaharrean izan zen. Bertol Arrieta zarautzarrak lehen saria jaso zuen, Irati Harstuaga tolosarrak bigarrena, Iratitz Agirre arrasatearrak Debagoienako Onenaren saria eta Roberto Izagirrek, berriz, Bergarako Onenaren saria. /2002-02-22

HILEKOESALDIA

"Donostiaren eta Irunen ondoren, Bergara izan da Gipuzkoatik odol gehien eman duen herria"

J.JAUREGI / ODOL EMAILE OHIA

2002-02-01

HILEKODATUA

119

ZABOR EDUKIONTZI BERRI HERRIKO KALEETAN

Otsailaren 25ean, zaborrendako edukiontzi sistema berria jarri zuten abian; erabilpen arauak ere eman zituzten. /2002-02-15

ZUHAITZ LANDATZEA ETA AZOKA

↑ Ingurumen batzordeak espezie autoktonoak bultzatzeko helburuarekin antolatu zuen ekimen bikoitza. /2002-02-15

EPAITEGIAN EUSKARAK BIZI DUEN EGOERA

↓ Bergarako epaitegiko funtzionarioen %68 eta epaileen %100 erdaldunak dira. /2002-02-08

AIPAGARRI



XABIER ALBERDI 'SATO'
Abenturazalea



LAURA UGALDE
Moda editorea



FELIX IDIGORAS
Argazkilaria

"Sato" bezala ezagunagoa den bergararrak, beste hiru lagunekin, Marokoko basamortuan eta Atlasetan hamar globo hegaldi egin zituen. /2002-02-01

Europa mailako lehiaketan finalera iritsi zen, baita Donostiakoan ere. Villagarcia de Arosan, berriz, Moda Galicia lehiaketan lehen saria. /2002-02-01

Felix Idigorasek Kubaren gaineko argazki erakusketa izan zuen Gure Ametsa elkartearen. Argazkilaria amateurraren lehen erakusketa izan zen. /2002-02-01

LAGUN GARAJEA

Tailer profesionala

Mekanika orokorra

**ZORIONAK
GUZTIOI!**

Santalaitz 3. Bergara. Tel.: 943 76 11 20

ERAIKUNTZAK



Artzamendi, S.A.

**San Juan auzoan
pabilioi berriak**

Burdiñate plaza 6-behea
Tel.: 943 76 27 58 - 943 76 01 53
Faxa: 943 76 01 53
20570 BERGARA

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENEAN
Fagorreko lau langile, istripuan hil, Iranen

Fagorreko lau langile hil ziren, Iranen gertatutako hegazkin istripu baten ondorioz. Arrasate, Markina eta Donostiako lau lagun ziren.
2002-02-12

► EUSKAL HERRIAN
ETAko sei kide atxilotu zituzten Iruñean

ETAko sei kide atxilotu zituen Guardia Zibilak, Iruñean, kartzela-funtzionario bat hiltzeko asmoa zutenean. Seietatik, hiru Segi erakundetik zetozen.
2002-02-21

► MUNDUAN
Milosevicen aurkako epaiketa hasi zen

Slobodan Milosevic Jugoslaviako presidente ohiaren aurkako epaiketa hasi zen. Genozidioa eta gizadiaren aurkako krimenak leporatu zizkieten.
2002-02-12

POLITIKA



Herriko Mahai eratu berria aurkeztu zuen Batasunak

Bergarako Batasunak erakundearen egitura berria aurkeztu zuen Artatse elkartearen egindako prentsaurrekoan. Egitura horren barruan, Bergarako Herriko Mahaia osatzen duten 21 laguneren izenak eman zituen aditzera, baita 2002. urtean jarraitu beharreko ildoak ere. Egitura hori antolatzeke prozesuan hainbat alor estrategikotako jendearekin izan zuten harremana. /2002-02-08

EUSKARA

EHEren azken kanpainari hainbat eragile lotu zitzaizkion

Euskal Herrian Euskaraz taldeko kideek *Eskolak euskaldundu behar du* kanpainaren berri eman zuten. Euskal Herrian kanpainak eragile ugariaren atxikimendua lortu zuen. Eta EHEko kideek gogorarazi zuten euskaraz jakitea euskal herritar guztiek duten eskubidea dela. /2002-02-22

INGURUMENA

Jaurlaritzak atzera bota zuen parke eolikoaren proiektua

Eusko Jaurlaritzak atzera egin zuen Irukurutzeta-Karakate mendilerroan parke eolikia egiteko asmoarekin. Hau da, Lurralde Plan Sektorialeatik kanpo utzi zuen kokapen hori. Hango aztarna megalitikoetan eragingo lukeen kaltea izan zen erabaki hori hartzeko arrazoia. /2002-02-01

HERRIKO GUTUN ONENAREN SARIA IRABAZI ZUEN. /2002-02-08



ROBERTO IZAGIRRE
UDALEKO HARRERAKOA

"Hurrengoan, gutuna beste lagun batekin idatzi nahiko nuke"

Amodiozko Gutunen Lehiaketan jaso zuen saria. Baina datorren urtean lehiaketara aurkezteko zalantzak ditu. Beste lagun batekin idaztea lortzen badu, aurkeztuko da.

KIROLA

Igeri Elkarteko neskek bikain Euskadiko Txapelketan

Igeri Elkarteko infantil mailako neskek Igerilari Osoaren Euskadiko Txapelketan izan ziren. Estilo bakoitzeko 100 metroetako banakako probak izan zituzten. Horrez gain, Errelebuko probak ere izan ziren. 4x100 metro estiloko proban bigarren postua eskuratu zuten. /2002-02-22



Igeri Elkarteko infantil neskek bigarrenak izan ziren 4x100 proban.



ZURICH
ASEGURUAK

CASIMIRO BRIZ SALINERO

Aseguru - Aholkularia

Zorionak denoi!

Araba etorbidea 3 - 2. 20.500 Arrasate
T: 943 797 152 T/F: 943 794 235

brizseguros@euskalnet.net
e-mail: brizseguros@brizseguros.euskalnet.net

Barrenkalea 44. 20.570 Bergara
T: 943 765 785 F: 943 769 246

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

Zorionak
eta
urte berri on!

MARTXOA



"Gauza atsegingarriak aukeratzen ikasi behar dugu zahartzaroan"

ALBERTO URIARTE / PSIKOLOGOA

2002-03-01



"Mundu guztiak ikas dezake interpretatzen, gogoia edukiz gero"

PEDRO MUXIKA / VIRAGO-KOA

2002-03-22



Kooperatibistak ez ziren Geyser-ko langileek greba egin zuten

Geyser Gastech enpresako langileen ia erdiak lau orduko lan-etena egin zuten. Lantegi horretan berrehun eta berrogeita hamarretik gora langile zeuden orduan, baina berrehun inguru kooperatibistak ziren. Kooperatibistak ez ziren talde horrek egin zuen greba. Lan berbera eginez besteek baino gutxiago kobratzea salatu zuten. /2002-03-22

HILEKOESALDIA

"Gizarte ereduaren aldaketengatik, gaur egun, gaixoa bere eskubideak aldarrikatzeko gauza da"

XABIER IBARZABAL / MEDIKUA

2002-03-08

HILEKODATUA

4,5

MILIOI EURO INGURU INBERTITUKO DITU UDALAK

Kirolgune berrian, gaztetxean, kanposantuan, argiteria publikoan eta etxebizitzetarako lurretan gastatuko ditu. /2002-03-27

JUSTIZIA EUSKARARENTZAT TALDEAREN KANPAINA

↑ Kanpaina bat hasi zuten justizia administrazioan euskaldunen hizkuntza eskubideak berma daitezela. /2002-03-15


SAIHESBIDEKO LAN-ISTRIPUAK

↓ Saihesbidea eraikitzeke lanetan gazte bat hil zen, eta istripu gehiago ere gertatu izan dira. /2002-03-27

AIPAGARRI



MAIDER AZKARATE
Ile apaintzailea



RAMON ETXANIZ
Txistularia



BIXENTE MURGOITIO
La Vergaresakoa

Bigarren saria eskuratu zuen Emakumezkoen Ile Apaintzaileen X. Gipuzkoako Txapelketan. Ile Apaintzaile Abangoardistaren saria ere lortu zuen. /2002-03-22

Gure Ametsako kideek omenaldia egin zioten. Horrela, Bergaran txistuaren irakaskuntzan eta zabalkundearen egin-dako lana eskertu zioten. /2002-03-15

La Vergaresan 42 urtean lanean ibili ondoren, erretiratu egin zen. Haren lan-kide izandakoek bazkaria antolatu zuten, eta omenaldia egin zioten. /2002-03-22



Berria Garajea

Mekanika • Elektrizitatea • Karrozeria

Amillaga 49 • San Lorentzo Industrialdea
Tel. 943 76 24 43 • Faxe 943 76 22 43
20570 BERGARA (Gipuzkoa)

**ZORIONAK
ETA URTE BERRI ON!**

Zatoz **Ford TourneoConnect** berria ikustera!



P. Manso

OPTIKO OPTOMETRISTAK

Urte
berri on!!

Irizar pasealekua 2 | 20570 BERGARA (Gipuzkoa) | Tel.: 943 76 27 86

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENEAN **Arantzazu berritzeko plana aurkeztu zuten**

Seminarioaren atal bat eta frontoia botatzea zehaztu zuten, baita beste eraikin bat egitea ere. 5.500 milioi euroko aurrekontua zuen planak. /2002-03-18

► EUSKAL HERRIAN **ETAk PSEko Orioko zinegotzia hil zuen**

Juan Priede Orioko PSEko zinegotzia hil zuen ETAk. Egun batzuk lehenago, Bilboko Burtzari erasotzeko asmoz lehergailua ipini zuen. /2002-03-21

► MUNDUAN **Lurrikara batek 5.000 hildako Afganistanen**

Richter eskalan 6,3ko intentsitatea izan zuen lurrikara batek Afganistango iparraldea guztiz birrindu, eta ia 5.000 hildako utzi zituen. /2002-03-26

HIRIGINTZA



Erregetxo plazako eraikina eskaini zion Udalak Aranzadi Ikastolari

Udalak hitzarmena sinatu zuen Ortuibar eta Mauricio Arregi konstruktoreekin, Miguel Altuna erdia Mariaren Lagundiko eraikinagatik trukatzeko. Horren ondorioz, Mariaren Lagundia-rena zen Erregetxo plazako eraikina eman zioten Udalarari. Eta Udalak Aranzadi Ikastolaren Errege Seminarioa hartu nahi zuenez, Erregetxo plazako eraikina eskaini zion Aranzadiri. /2002-03-27

KULTURA

Erramu Zapatuko Ferian, inoiz baino jende gehiago

Eguraldia lagun izanda, sekulako jendetza bildu zen Erramu Zapatuko Ferian. Ganaduari dagokionez, 110 buru inguru izan ziren Ibargarain. Seminarioko patioan, berriz, Eusko Labeleko postu ugari izan ziren. Artisautzari dagokionez, 60 artisauren lana egon zen ikusgai. /2002-03-27

ESKUBALOA

Senior eskubaloi taldea, Gipuzkoako txapeldun

Bergara Kirol Elkarteko senior eskubaloi taldeak Liga Txapelketa eskuratu zuen, Arrasateri 21-28 irabazita. Horren ondorioz, Bergarak Bigarren Maila Nazionalera igotzeko fasea hasi zuen. Igoera fasea sei talderen arteko lehia oinarritzen zen, baina bi bakarrik igoko ziren. /2002-03-15

GORLAKO IGOERA BERRITUA IRABAZI ZUEN /2002-03-22



IÑIGO URRETXUA
TXIRRINDULARIA

Sei urte daramatza amateurretan; aurten, azkena izango da

Sei urte daramatza amateurretan. Aurten, profesionaletera ez bada igarotzen, txirrindularitza utziko duela baieztatu digu. Urte hau amateurretan azkena izango du.

KIROLA

Igerileku olinpikoaren aldeko sinadura batzea hasi zuten

Igeri Elkartek, 50 metroko igerilekua ez kentzeko, sinadura batzea hasi zuen. Udalak Agorringo kirolgunerako landutako aurreproiektuan igerileku hori kentzea zehaztu zuen. Udalaren aurreproiektuaren arabera, oraingo instalazioak kendu eta

hiru igerileku egiteko asmoa dago. Bergara Igeri Elkartek hasieratik azaldu zuen desadostasuna aurreproiektuarekin. Erabiltzaile gehienek iritziak, 50 metroko igerileku batekin Udalak bete nahi dituen behar guztiak beteko lirateke. /2002-03-15

SINDIKATUAK

ELAk Ortuibarko egoitza berria inauguratu zuen

ELAk Ortuibar ibilbideko egoitza berria estreinatu zuen. Jose Elorrieta sindikatuko idazkari nagusia eta Unai Martínez Deba ibarreko arduraduna izan ziren inaugurazio ekitaldian. Lokal berrira ailegatu arteko ibilbide historiko laburra egin zuen Martínezek. /2002-03-08

Urte berri on!

T textil bergara B

Bulego eta komertzioendako: estoreak, veneziarrak eta biribilgailuak



- Nordikoak.
- Gortinak.
- Mantak.
- Mahai-zapiak.
- Alfonbrak.
- Jantzigintzarako eta tapizgintzarako telak.
- Osagarriak bainugelarako.
- Gortinak zintzilikatzeko errailak.



Amillaga industrialdea, 5 • 284 postakutxa • 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 76 72 52 • Faxe: 943 76 03 40
Posta-e: textilbergara@textilbergara.com • Web: www.textilbergara.com

APIRILA



"Dementziadun gaixoei segurtasuna transmititzea oso garrantzitsua da"

NEKANE LARRAÑAGA / AFAGI-KOA
2002-04-26



"Herri batzuk bereziak dira antzesteko orduan; Bergara horietarikoa da"

ITSASO AZKARATE / TAUN-TAUNEKOA
2002-04-19

HILEKOESALDIA

"Belaunaldien arteko borroka hizkuntza barruan ari da gertatzen, eta hori positiboa da"

KIKE AMUNARRIZ / SOZIOLINGUISTA
2002-04-19

HILEKODATUA

1.200

ZAHARREN AGIRIAREN ALDE JASOTAKO SINADURAK

San Joxepe elkarteak Zaharren Agiriaren alde jasotako sinadurak Zahartzearen Mundu Batzarrarean aztertu zituzten. /2002-04-12



Irala kaleko proiektua, esleitura

Baldintzak lehiaketara atera ondoren, Iñaki Berasategi arkitektoari esleitu zion Udalak Irala kalea urbanizatu eta azpian aparkalekuak egiteko proiektua idaztea. Lehiaketara hiru arkitekto aurkeztu ziren, eta Iñaki Berasategiren ideia aukeratu zuten. Era berean, Barrenkalekoei aparkalekuan plaza erosteko aukera eskaintzea aztertzen ibili zen Bergarako Udala. /2002-04-26

19.989 EURO GIZARTE ZERBITZUKOENDAKO

↑ Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten elkarteendako diru-laguntza hori eman zuen Bergarako Udalak. /2002-04-19

ZUHAITZ GUTXIAGO EROSKI ONDOKO ESPALOIAN

↓ Eroski aurreko bi zuhaitz bota zituzten. Dirudienez, zuhaitzak kentzea landatzea baino errazagoa da. /2002-04-19

AIPAGARRI



MARKEL LARRAÑAGA
Shotokan taldekoa

Markel Larrañaga karateka 3. izan zen Euskadiko Txapelketan, gazte mailan. Lehenago, Gipuzkoako Txapelketan bigarren postua lortu zuen. /2002-04-26



JENNY RANDERSON
Galesko ministroa

Galesko kultura, kirol eta hizkuntza ministroa eta beste hainbat ordezkari Bergarara etorri ziren. Euskal Herriko egoera aztertzen izan ziren. /2002-04-19



IGOR GUTIÉRREZ
Pilotaria

Ander Muguruzarekin batera Debarroko Pilota Txapelketa irabazi zuen. Igor izan zen finaleko onena. Aurretik, Udaberrikoa ere irabazi zuen. /2002-04-12



EAJ PNV

Gabon zorientsuak eta urte berri on guztioi

BULEGOA Tel. eta faxa: 943 76 47 00

TABERNA Tel. 943 76 49 33

San Pedro 4, BERGARA

SOLAR-CHECK
Tuning

NOBEDADEA:
Eguzkitik babesteko laminak!
Baita koloretan ere!

IBILGAILUENDAKO KRISTALAK

Autobus / Kamioi / Turismo / Furgoneta

Muntatzea • Salmenta • Konponketa

DESACRISTAL

943 76 36 09 Bergara • 943 69 16 16 Irura

Ondo-ondo pasatu Gabonetan...



Matxiategi 4.
Tf. 943 76 57 99

Lurradero 2.
Tf. 943 76 01 26



Lantokia.: Amillaga kalea
Tf. 943 76 72 28

Bergara

IRALA
Autozerbitzua

Trizar pasealekua, 3
Tf. 943 76 10 71



OLABE
okindegia - gozotegia



Mariaren Lagundia Ikastola

Otik
16 urtera
arteko
heziketa
integratua
eskaintzen
dizugu




Tipi-Tapa hartzaindegia, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Goimailako Heziketa Zikloa (gizarte integrazioa)

Espoloia 1. Tf. 943 76 25 40 / 41 • E-mail: marilagikastola@euskalnet.net
Webgunea: www.euskalnet.net/marilagikastola/bergara.html
Tipi-Tapa hartzaindegia: 943 76 01 52



Burdiñate 1. 943 76 02 57



Toki Eder plaza 3. 943 76 14 87

Batean edo bestean, zerbitzurik onena geurean



KONDE PANADEROKUA

Ondo has dezazuela urte berria!

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENEAN
Gutxitu psikikoendako eguneko zentroa

Adimen urritasunak zituztenak atenditzeko eguneko zentroa zabaldu zuten Bergarako Espoloian. Hogei lagunendako lekua zuen egoitzak. /2002-04-19

► EUSKAL HERRIAN
BBVren isilpeko kontuak, agerian

BBV banketxeak paradisu fiskaletan 225 milioi eurotik gorako inbertsioak zituela atzeman zen. Bilboko gotzainak hiru milioi zituen kontu horietako baten. /2002-04-03

► MUNDUAN
Chávezen aurkako kolpea Venezuelan

Hugo Chávez presidentearen aurkako estatu-kolpea egin zuen Venezuelako armadak. Hurrengo egunean, ordea, Chávezek boterea berreskuratu zuen. /2002-04-12

PRESOAK



Xabier Oregi "Panti", hamabost urte espetxean

Apirilaren 6an bete zituen *Panti*-k 15 urte espetxean. Zigorraren hiru laurdenak beteta zituen arren, Murtziako kartzelan jarraitu zuen. Hori dela eta, Bergarako Etxerat taldeak haren omezeko hainbat ekitaldi antolatu zituen. Ekitaldi horien artean, elkarretaratzeak, giza katea, Benito Lertxundiren kontzertua eta mendi ibilaldia izan ziren, besteak beste. /2002-04-12

KIROLA

Iker Ozkoidi izan zen garaile Gorlako lasterketan


Iker Ozkoidik irabazi zuen Gorlan jokaturako Txakur Leren Lasterketa. Eguraldi txarra zela eta, antolatzaileek uste zutena baino partaidetza eskasagoa izan zen aurtengo ekitaldian. Hogeita bat partaide ibili ziren lehian. Ozkoidik sei txakurrekin hartu zuen parte. /2002-04-19

ESKUBALOIA

Senior mailako eskubaloi taldea, lider, Labegarietan

Seniorrek 33-24 irabazi zioten Muskiz taldeari, Labegarietan. Bigarren maila nazionalera igotzeko ligaxkan lehenak izan ziren mahoneroak. Jokaturako lau partiduetatik, hiru irabazi eta bakarra galdu zuten Edu Orgazen mutilek. Golegile nagusia Garikoitz Arregi izan zen. /2002-04-19

GAZTEENDAKO ANTZERKI IKASTAROA ANTOLATU ZUTEN /2002-04-26



PEDRO MUXIKA
VIRAGO ANTZERKI TALDEKO ARDURADUNA

Datorren urtean emanaldia egiteko gertatzen

Taldeko umeek aurrera eginez gero, urte eta erdi barru edo datorren urteko Gabonetarako emanaldia egiteko moduan egon daitezkeela baieztatu zigun Pedro Muxikak.

KULTURA

Asier Altunak 'Topeka' film laburra grabatu zuen

Asier Altunak film laburra Geta-riako Azkizu auzoan grabatu zuen. *Topeka* du izena filmak, eta Joseba Sarrionandiaren *Ez gara geure baitakoak* ipuinaren egokitza-pena da. Istorioa ahari-jokoa oinarrituta dago, eta lau minutu inguru irauten du. Lan horren aurretik, *Txotx* eta *40 ezetz* filmak

zuzendu zituen, Telmo Esnalekin batera. Hirugarren hori, *Topeka*, bakarkako lana izan da. Altunarendako, esperientzia berria izan zen azken film horretan egindako lana, ez bakarka zuzendu zuelako bakarrik, baita bideo sistemarekin grabatu zuelako ere. /2002-04-12




Asier Altuna, grabazioan.

ANSOLA

garraioak

Zorionak eta urte berri on!

Koldo Eleizalde, 3 • Tel.: 943 76 20 85



ROTULOS ZABALETA
Mota guztietako errotuloak

Zorionak eta Urte berri on

Telf. 943 76 57 34 Faxe 943 76 58 53 Mobila 689 54 81 83 BERGARA
r-zabaleta@euskalnet.net

MAIATZA



*"Oraindik ere bikote
heterosexualetan mutilak
joaten dira neskegana"*

ELI MORENO / SEXOLOGOA

2002-05-10



*"Badago jendea, euskaraz
jakin arren, erabiltzea
lotsa ematen diona"*

MIREN ERRASTI / PEGATINA ONENA

2002-05-17



Arrano taberna, Artatse elkarte eta beste bulego bat, enbargatuta

Batasuneko kideek prentsaurrekoan aditzera eman zuten, Arrano taberna, Artatse elkarte eta beste bulego bat enbargatu egin zituen Garzon epaileak. Enbarguak apirilaren 29ko data zuen, hau da, Batasuneko kideen aurkako operazio poliziala egin zenekoa. Enbarguez gain, kontuak ere blokeatu zizkieten. Hainbat lagun prentsaurrekoan batu ziren egoera salatzeko. /2002-05-24

HILEKOESALDIA

**"Ipar Amerikan ez
bezala, Malagan
ez da erraza
euskaldun izatea;
ia-ia ezkutatu
egin behar duzu"**

IÑIGO GALLASTEGI / HARRERAGILEA

2002-05-10

HILEKODATUA

75

PAZKOETAN KALEAN JARRI ZITUZTEN POSTUAK

Beste urte batzuetan baino sal-
menta postu gehiago egon ziren
aurten. Udaltzaingoko iturrien
esanetan, 75. /2002-05-24

TXAPA IRRATIA, BERRIRO UHINAK OKUPATZEN

↑ Arazo tekniko batzuk zirela medio sei hilabetez isilik egon
zen Txapa Irratia berriro hasi zen emititzen. /2002-05-03

CESPAKO KALE GARBITZAILEAK, GREBAN

↓ Mugagabeko greba hasi zuten; hain zuzen ere, lan-hitzar-
menaren gainean zituzten desadostasunengatik. /2002-05-03

AIPAGARRI



UNAI ARANTZABAL
Txirrindularia



AINTZANE MENDIZABAL
Kirolezalea




JON LAZKANO
Mendizalea

Biciprecision Igar-
tua taldeko txirrin-
dulariak kadete mai-
lako Zarauzko las-
terketa irabazi zuen,
berarekin zihozaren
beste laurak atzean
utzita. /2002-05-24.

Pirinioetan zehar-
reko ibilbidea egin
zuen. Figueresen
hasi eta Bergararai-
no etorri zen bizi-
kiletaz. Egunean, 38
kilometro inguru
egin zituen. /2002-05-31

Alberto Inurrategi-
ren espediziokidea
izan zen Jon Lazka-
no bergararra Anna-
purnan, Inurrategik
hamalagarren zor-
tzimilakoa lortu zue-
nean. /2002-05-31



"la Caixa"

Fraiskozuri plaza 7. Telefonoa: 943 76 41 16
BERGARA



Urte berri on!

GAZTELU

BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • Faxes: 943 76 32 52 • BERGARA

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENEAN

Emakume bat hil zuten, labankadaz

Arrate Elkoro Elgetako estankoko jabea hil zuen, labankadaz, Aitor Mendikutek. Kartzelan izan ondoren itzulia zen herrira. Handik gutxira harrapatu zuten. /2002-05-09

► EUSKAL HERRIAN

Alberto Iñurrategik, azken zortzimilakoa


Alberto Iñurrategi mendizale aretxabalarra bere hamalagarren zortzimilakoa, Annapurna, egin ondoren iritsi zen Euskal Herrira. /2002-05-24

► MUNDUAN

Berriro ere, Chirac presidente Frantzian

Jacques Chiracek irabazi zituen hauteskundeak, botoen %82rekin. Frantziak ez zion Jean-Marie Le Pen ultraeskuindarrari garaipenik eman. /2002-05-05

AURKIKUNTZA



1936ko gerrako obusa agertu zen Oxirondo plazako lanetan

Santa Marina elizaren atzeko aldean eraikitzen ari ziren Oxirondo plazako langileek aurkitu zuten bonba. Hondeatzeko makinarekin lurra jasotzen ari zirela azaldu zen. Ertzaintzaren iturriek azaldu zuten, 1936ko bonba zen, hau da, Espainiako gerrako obusa. Ertzaintzakoek esan zuten, gerra garaiko lehegailu arrunta zen, eta ez zeukan eztanda egiteko arriskurik. /2002-05-24

PIRAGUISMOA

Beti-busti taldekoak, bikain, Gipuzkoako Txapelketan


Beti-busti hirugarren izan zen Bidasoa ibaian jokaturako ur-bizietako taldeko esalom proban. Junior mailan, Lierni Errastik brontzezko domina irabazi zuen. Kadete mailan, berriz, Markel Agirrek urrezko domina, eta seniorretan, berriz, Iraitz Artolak brontzezkoa. /2002-05-31

HIRIGINTZA

Udalak bost alegazio egin zizkion Ondartza baserriko proiektuari

Foru Aldundiak Ondartza baserria eraberritu eta birgaitzeko egin zuten proiektuari bost iradokizun, alegazio eta proposamen egin zizkion Udalak. Horren helburua zen baserriaren eta atxikita duen ermitaren jatorrizko elementuak zaindu eta nabarmentzea. /2002-05-31

ZAZPIGARREN URTEZ YOGA IKASTAROA ANTOLATU ZUEN. /2002-05-10



JOSE LUIS ARMENDIA
YOGA IRAKASLEA

Pixkanaka eskolen ardura laga eta liburu bat idazteko asmoa du

Orain dela 24 urte hasi zen Yoga ikastaroak ematen. Pixkanaka eskolen ardura beste batzuei laga eta yogaren gaineko liburua idatzi nahi du, yogarekin gaixotasunei aurre egiteko.

KULTURA

Bergararen hirigintza bilakaera, liburu baten jasota

Jesus Gil Massa historialariak egin zuen liburua, eta maiatzean aurkeztu zuen. Erdi Arotik XVIII. mendera arteko bilakaera jasotzen du liburua. Udalaren ustez, Bergarako arkitekturen zibilaren gainean egindako lanik garrantzitsuena eta osatuena da. /2002-05-31

DANTZA

Euskadiko Dantza Txapelketan, bergararrak bigarren

Hamabost urtetik beherakoendako Euskadiko Dantza Suelto-ko Txapelketan Donostiako Andrea Pozak eta Jon Agirretxek irabazi zuten. Bigarren, berriz, Bergarako bikote bat sailkatu zen, Ibane Basetak eta Mikel Igartuak osatutakoa. 17 bikotek hartu zuten parte. /2002-05-24

KULTURA

Nazioarteko Txotxongiloen VI. Mostra egin zuten

Helduendako Nazioarteko Txotxongiloen VI. Mostra horretan bederatzita talderen lanak ikusteko aukera egon zen, aretoan zein kalean. Hamabi urteko ibilbidea du, bi urtean behin egiten dute eta. Horrez gain, kultura etxean txotxongiloen gaineko erakusketa egon zen ikusgai. /2002-05-03

ERLOJUDENDA

Gabon zoriontsuak igaro ditzazuela!

AINH



A

Boni Laskurain 2 ☎ 943 76 47 40

BITXITEGIA

Ipiñarri
zerrategia S.L.

IBARRA z/g. 20570 BERGARA. TELEFONOA: 943 76 15 93.

Altzariak
Arozgintza
Eraikuntza
Enbalajea

EKAINA



"Gure autoak bizkarrezurra baino hobeto tratatzen ditugu"

MICHEL MARMIER / MEDIKUA

2002-06-14



"Bergara KEko Futbol Saileko presidentzia utziko dut hemendik gutxira"

IÑIGO ZAITEGI / BKE-KO PRESIDENTEA

2002-06-21

HILEKOESALDIA

"Ikastolak izan dira, batez ere, euskararen hazia erein, eta nolabait esateko, erein eta ernarazi dutenak"

ANDRES OSA / KAZETARIA


2002-06-21

HILEKODATUA

500

BERRIGARA-K ARGITARATU ZITUEN ZENBAKIAK

BERRIGARA aldizkariaren 2002ko ekaineko zenbakia 500.a izan zen. 1990eko abenduaren 14an sortu zen. /2002-06-14



Adimen-urritasun larria tratatzeko egoitza ireki zuten

Uliazpi Fundazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikitako fundazioak, adimen-urritasun larriko pertsonen beharrei erantzuteko egoitza ireki zuen Toki Eder plazan. Debagoieneko biztanleei zuzenduta dago eta Paul Zubillaga pediateraren izena darama. Bi zerbitzu eskaintzen ditu: Bizileku Zerbitzua eta Eguneko Zerbitzua. Goiko argazkia inaugurazio ekitaldikoa da. /2002-06-28

BERGARAKO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANA

Udalak, Jaurlaritzak eta Aldundiak euskarari dagokion lekua egiteko plana aurkeztu zuten. /2002-06-07

AFAN ENPRESAK ETXEETARA HELARAZITAKOIA

Udalak esan zuen ez zela inongo lan deialdirik egin; beraz, Afan-ek zabalduetako informazioa gezurra zen. /2002-06-07


AIPAGARRI



NATALIO JUARISTI
Erretiratua



ESTEBAN LAZKANO
Triatleta



XABIER LIJÓ
Mendizalea

Azken urteotan Udaleko Literatura Lehiaketan saritua izan da. San Joxepeko Abesbatzan ere badihardu, eta gaztetan, aktore ibili zen Natalio. /2002-06-28

Lanzaroteko Iron Man proba 12 ordu eta 47 minutuan amaitu zuen, eta igeriketan moldatu zen ondoen. Mundu osoan 876 triatleta batu ziren. /2002-06-07

Xabier Lijó 13 ordu eta 30 minutuan bukatu zuen Hiru Handiak proba. 800 lagunetatik, 45 baka-rik auzartu ziren proba korrikari-egitera. /2002-06-28

NINIKA

Gabon jai zoriontsuak izan ditzazuela denok!

LOREAK MUNDU OSOAN



INTERFLORA

loradenda

Jaiotze-ospakizunak, ezkontzetako eliza eta jatetxea... dena apainduko dizugu!

Ramon Maria Lili 8. Tf. 943 76 10 01

IRALA

Bideoak

VIDEOMATIC Plus

DVD

Zatoz gure eskaintzez gozatzera!



- Filmak eskuratzeko hiru makina
- Kafe-makina
- Sandwich-makina
- Gozoki-makina

BOLU SUKALDEAK



2000eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu, 22-behea . Bergara . Telefonoa eta faxa : 943 76 27 02

ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

A man with dark hair and sunglasses is captured in a dynamic, dancing pose. He is wearing a brown suit jacket and matching trousers with a white polka-dot pattern. Underneath, he wears a dark, textured vest and a checkered shirt. He is also wearing a gold chain necklace. His right hand is raised near his face, and his mouth is open as if singing or shouting. The background is a vibrant, abstract pattern of orange, yellow, and blue geometric shapes, possibly representing a stage floor or a wall. The overall mood is energetic and theatrical.

Ondo jan eta gero...

ibili saltsero.

Urte berri on!

Ariznoa

Dixula

Eusebio II

Frontoia

Intxorta

Iraho

Kafe

Kortazar

Mitor

Sirimiri

Txarrantxa

Urrats

Usoa

Zuhaizti



IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Zorionak
eta urte
berri on!



Eguneko menua • Plater konbinatuak
Kintadak • Bataioak eta jaunartzeak

Fraiskozuri 7. Bergara. 943 76 20 40.

ANTXONI

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENEAN **'Noizko?' taldearen aurkezpena**

Zigorren hiru laurdenak beteta dituzten presoek askatasuna eskatzeko, Noizko? taldea sortu zen, Arrasaten, jende ezagunaren atxikimenduari. /2002-06-14


► EUSKAL HERRIAN **Greba orokorra Espainiako gobernuari**

Euskal sindikatuek proposatutako greba orokorrak jarraipen desorekatua izan zuen: Gipuzkoan eta Bizkaian, nahiko ona, eta eskasa Araban eta Nafarroan. /2002-06-19

► MUNDUAN **Brasilek irabazi zuen Munduko Txapelketa**

Brasilgo selekzioak bosgarren aldiz irabazi zuen Munduko Futbol Txapelketa, Korean. Garaipeneko bi golak Ronaldok sartu zituen. /2002-06-31

KIROLA



Ariznoak Igartua, Fernández eta Narváez gimnastak omendu zituen

Aurtengo ikasturtearen amaierarekin bat eginez, Ariznoa gimnasia erritmiko taldeak azken urteotan Ipurua taldean jardun duten Jaione Igartua, Ane Miren Fernández eta Aintzane Narváez omendu zituen Labegaraietako kiroldegian. Hirurek gimnasia utzi zuten, ikasketengatik, nagusiki. Ariznoan eman zituzten lehen urratsak, eta azken urteak, Eibarko Ipuruarekin. /2002-06-28

UR ZERBITZUA

Gipuzkoako Partzuergoari pasatu zioten ur zerbitzua

Beheko sareko ur horniketa eta saneamendu zerbitzua Gipuzkoako Ur Partzuergoaren bidez ematea erabaki zuen Udalak. Erabakia EAJ-EA eta PSE-EE alderdien oniritziarekin hartu zuten. Bata-sunak, bestalde, ez zuen gaia bozkatu. Arreta Bulegoa jartzea ere erabaki zuten. /2002-06-28

URTEURRENA

Aranzadikoek 30. urteurrena ospatzeko jaialdia egin zuten

Aranzadi Ikastolak 30 urte bete ditu. Hori ospatzeko eta ikasturtea amaitzeko, musikaz betetako jaialdia egin zuten frontoian. Ekitaldi horretan, gainera, Imanol Urbieta pedagogo eta konposatzaile zarauztarra omendu zuten, Aranzadi Ikastolan egin duen lanarengatik. /2002-06-28

JOKALARIAK SARIETARAKO IZENDATU ZUTEN. /2002-06-28



EDURNE AZUARA
AKTOREA

Oraingoz Euskal Herrian jarraitzeko asmoa dauka

Hasiberriak telesailean oso gustura ibili da lanean. Lehenik eta behin, Euskal Herrian bere lana biribildu nahiko luke; edozelan ere, ez du nahi kanpora irteteko ideia baztertu.

ELKARTEAK

San Joxepe elkarteak batzar orokorra egin zuen

Erretiratuak elkarteak batzar orokorra egin zuen Boni Laskuraineko egoitzan. Batzarrean zuzendaritzako kideen %50 berritu zituzten, estatutuetan jasotzen den legez. Bestalde, erretiratuak egoitzaren ibilbidearen gaineko liburua argitaratzeko asmoa azaldu zuten. /2002-06-14



Zuzendaritza osatzen zuten hamar lagunetatik, sei izan ziren batzarrean.

ZAIAZKO

TELEKOMUNIKAZIOAK



Orain, Via Digital-ekin, nahi duzuna bakarrik ordaindu

Eta orain, gainera, dekorazioareko opariekin

Telesforo Aranzadi 3, BERGARA. 943 76 10 66

Ondo hasi urte berrixa!!



Perfumeria - Edertze aretoa

Urte berri on herritar guztioi!

Ibargarai, 10 • Tel.: 943 76 00 85 • 20570 BERGARA

UZTAILA



"Euskal Herriaren zerbitzurako unibertsitate euskalduna behar dugu"

IBAI REDONDO / IA TALDEKO KIDEA

2002-07-05



"Glasgowen bizi garen bergararrok sarritan egoten gara elkarrekin"

AMAIA ZURUTUZA / KIMIKARIA

2002-07-19



Mayc, lehena, ISO 9001 ziurtagiri berria eskuratzen

Mayc-eko Gias Servicek, hau da, laguntza teknikoko zerbitzuak, ISO 9001 ziurtagiria jaso zuen AENORen eskutik; 2000ko bertsio berrian eskuratu zuten ziurtagiria. Gias Service izan zen Estatuan bertsio berriaren ziurtagiria eskuratu zuen lehen laguntza teknikoko zerbitzua, eta Europako lehenengotarikoa. Bertsio hori aurrekoa baino zorrotzagoa da alor guztietan. /2002-07-05

HILEKOESALDIA

"Gure kulturaren egiten den umorearen zati handi batek giza sakrifikazioa behar du"

VIRGINIA IMAZ / PAILAZOA

2002-07-12

HILEKODATUA

350

BASERRI BIDEETAN JARRI ZITUZTEN SEINALE KOPURUA

Baserri bideetan seinaleak jarri zituen Udalak. Baserri bakoi-tzaren kokapena argitzeko jarri zituzten. /2002-07-19

745 KONTSULTA IZAN ZIREN TURISMO BULEGOAN

↑ Ekainetik uztailera bitartean, hots, hilabete eta erdian, 745 kontsulta egin zituzten Turismo Bulegoan. /2002-07-24


SAN MARTZIALEN EGOERA KASKARRA

↓ Zoruan zeuden zuloengatik, dantzari batek baino gehiagok bihurritu zuten orkatila San Martzialetan. /2002-07-05

AIPAGARRI



USOA MENDIKUTE
Margolaria



ENDIKA IBARRA
Dekoratzaila



RAQUEL BLANCO
Shotokan taldekoa

Usoa Mendikute UNEDeko Pintura Lehiaketan saritu zuten. Hirugarren saria lortu zuen, *Ama* izeneko lanarekin. 107 lan aurkeztu zituzten. /2002-07-05

Ibarra Estatuko aurpegi ederrena da, Madril en egindako XXI. Menderako Modeloak, Aurpegi Ederrena Lehiaketako epaimahaiaren iritiz. /2002-07-12

Raquel Blancok, Alberto Lerarekin batera, gerriko beltza eskuratu zuen Donostiako probetan. Epailen aurrean maila bikaina erakutsi zuen. /2002-07-05



Estella ortopedia

Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna

OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA

Matxiategi 5, BERGARA. Telefonoa: 943 76 19 63

- Etxerako laguntza teknikoak
- Kirol Ortopedia • Oinetakoak • Mastektomia
- Neurrira eginiko plantillak



RPS 421 /97

iMPRESPAL, C.B.

ARTE GRAFIKOAK

- Offset
- Enkuadernazioa
- Koloretako fotokopiak

Komenio kalea 2 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 00 01 • Faxes: 943 76 22 41
e-posta: imprespal@euskalnet.net

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENEAN **Hiru debagoiendar, Ikastolen Federazioan**

Jose Ramon Zubizarreta eskoriatzarra Gipuzkoako Ikastolen Federazioko presidente aukeratu zuten. Ibarreko beste bi lagun, talde bateragilean.
2002-07-12

► EUSKAL HERRIAN **EHUko katedra, Edurne Uriarteri**

Katedra Uriarteri zegokiola erabaki zuen Bizkaiko Auzitegiak, Francisco Letamendiari beharrean, eta katedra bueltatzera behartu zuen EHU.
2002-07-26

► MUNDUAN **71 hildako, hegazkin- istripuan, Alemanian**

Bi hegazkinek elkar jo zuten Alemanian, eta 71 lagun hil ziren, tartean oporretan zihozten 52 ume errusiar. Giza akats baten ondoriozko istripua izan zen.
2002-07-01

BERRIKUNTZAK



Santa Marina parrokia berritzeko lanak hasi zituzten

Santa Marina parrokia zaharberritzeko lanak hasi zituzten. Uztailean, hiru lan egin zituzten: bate-tik, eliza barruko margolanak kendu eta ondo gorde; bestetik, sakristau etxeko kanpoko pareta garbitzen hasi; eta, azkenik, erreka aldera ematen duen parrokiaren paretatik huntza kendu. Zeregin mardulenak geroago egiteko utzi zituzten. /2002-07-19

GIZARTEA

Bizikletaz eta oinez egin zen AHTren aurkako martxa

Hainbat lagunek egin zuten bat *Herriz herri AHTrik Ez!* martxarekin. Oinez herriko kaleetan barrena ibilaldia egin ondoren, Munibe plazara iritsi zen. Han Iñaki Antigüedad eta Jesus Mari Garitano trenak eragingo dituen kalteez aritu ziren. Gaua Bergaran pasatu zuten. /2002-07-05

FUTBOLA

Gorek irabazi zuen Ipintzako nagusien mailako Txapelketa

Gore taldea izan zen Ipintzako nagusien mailako txapeldun, finalean Mongatxurak taldeari 2-0 irabazita. Finalaren osteko sari banaketan finalistendako trofeoak izan ziren, eta hainbat jokalarri nabarmendu zituzten. Beteranoetan A Ze Flaxa izan zen txapeldun. /2002-07-24

IPURUA TALDEAREKIN DENBORALDI BIKAINA EGIN ZUEN /2002-07-05



LEIRE LASA
GIMNASTA

“Kirolarekin zerikusia duen zerbait egin nahi nuke etorkizunean”

Datorren urtean Batxilergo ikasketak egiten hasiko dela esan digu Leire Lasak. Etorkizunean, berriz, Fisioterapeuta edo SHEE ikasketak egin gura lituzkeela adierazi zigun.

IGERIKETA

Igerilari infantilak, hirugarren, Euskadiko Txapelketan

Bergara Igeri Elkarteko infantilek emaitza bikainak lortu zituzten Ordizian jokaturako infantil mailako Gipuzkoako Txapelketan. Maila horri eutsiz, Santurtzin jokaturako Euskadiko Txapelketan Igeri Elkarteko 4x100 estiloetako errelebu hirugarren sailkatu zen. /2002-07-19

KULTURA

Bulgariako, Galiziako eta Euskal Herriko folkloreak, elkarrekin

Hiru taldek hartu zuten parte Udal Pilotalekuan ospatu zen folklore jaialdian: Bulgariako Naiden Kirov dantza eta antzerki taldeak, Ourenseko Castro Floxo dantza taldeak eta Bergarako Xamatx taldeak. Protagonismo nagusia kanpotik etorritako bi taldeek izan zuten. /2002-07-19

KIROLA

Bergarako hiru lagun izan ziren Aizkorriko Maratoian

Joxe Balentziagak, Jose Mari Urtzelaik eta Bixente Pagaldaik Aizkorriko Maratoia bukatzea lortu zuten. Halakoetan lortutako denbora ez da inportanteena izaten; hala ere, irabazlea Tolosa amezketarra izan zen, eta hiru bergararretatik, Bixentek egin zuen marka onena. /2002-07-12



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Zorionak denoi!

ABUZZTUA



"Meteorologei zaila egiten zaie inguru honetako eguraldia iragartzea"

LUIS MARI AGIRRE / BASERRITARRA


2002-07-12



"Bergarako herriak oso ongi zaintzen du bere ondasun kulturala"

VICTORIANO GALLASTEGI / ALKATEA

2002-08-20



Udalak alegazioa aurkeztu zion Gabiria monumentu izendapenari

Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak Gabiria dorrea monumentu izendatuko duen espedienteari ekin zion. Proiektu hori alegazio fasean zegoenean, Bergarako Udalak alegazioa aurkeztea erabaki zuen, izendapen horrek ekar zitzakeen arazoak eta beste proiektu batzuekin bateraezintasuna aztertu ondoren. /2002-08-20

HILEKOESALDIA

"Bergaran arriskutsuak izan daitezkeen hamabost txakur zenbatu ditugu uda honetan"

ALFONSO ALONSO / UDALTZAINBURUA

2002-09-06

HILEKODATUA

5

ABUZZTUAN IZAN ZIREN EGUN EGUZKITSUAK

Ezin esan aurtengo uda ona izan denik. Abuztuan, euria izan dugu gehiago eguzkia baino: egun eguzkitsuak bost izan dira. /2002-09-06

ASTEBUKAERETAKO GAUEKO AUTOBUS ZERBITZUAK

↑ Udarako, egubakoitzetan ere jarri zuten gaueko autobuz zerbitzua; abuztuan ere mantendu zen. /2002-07-12


ZABORRA KALEETAN ZAKABANATUTA

↓ Abuztuan edukiontzietatik kanpo utzi zuen jende ugari zaborra; koltxoi bat ere azaldu zen kale erdian. /2002-08-19


AIPAGARRI



IÑAKI EGUREN
Erretiratua



FRANCISCO LETURIA
Margolaria



IÑIGO ZAITEGI
BKE-ko presidentea


Hiru urtez San Joxepeko zuzendaritzan diruzain jardun ondoren, laga egin zuen lan hori Iñakik. Hala eta guztiz ere, boluntario taldean dihardu. /2002-09-06

Estatuko toki askotan erakutsi du bere lana. 1973an, Bilboko Arte Ederren museoa bere lan bat egon zen, Euskal margolaritzaren erakusketan. /2002-09-06

1993 eta 1999 urteen artean BKE-ko presidentea izan eta gero, 2001ean berriz hartu zuen zuzendaritza. Uda honetan, berriz utzi du kargua. /2002-07-19

PASCUAL
TELEKOMUNIKAZIOAK

Arrasate 4. 20005 Donostia Tel. 943 42 04 28 eta Madril hiribidea 13.




Ibargarai 5 BERGARA
943 77 70 14 Faxa: 943 77 70 16
bergara@pascualalzuri.com

Liderrak
telefonía mobilean



Banatzaile ofiziala



Zorionak eta urte berri on!

TREKUTZ S.A.L.
BERGARA

Eguneroko zerbitzua

Agentzia

Bergara: San Lorenzo industrialdea
Tel.: 943 76 17 68 - 943 76 19 86



SAN MARTIN

HAUR HEZKUNTZA (3-6 urte)
LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)

Boni Laskurain 25.

Tel. 943 76 21 47

012265aa@hezkuntza.net

www.goieskola.net/SanMartinAgirreEskola



IPINTZA

DBH (12-16 urte)
BATXILERGOA (16-18 urte)

Giza eta gizarte Zientziak
Natur eta Osasun Zientziak
Teknologikoia

Boni Laskurain 17-19.

Tel. 943 76 31 42 / 43

012981aa@hezkuntza.net

www.goieskola.net/ipintzabhi



M. ALTUNA

LANBIDE HEZIKETA

Erdi Mailako Zikloak (16-18 urte)

Goi Mialako Zikloak (18 urtetik aurrera)

Mekanika

Elektrizitatea

Administrazioa

Plastikoak eta kautxoak

Ibargarai 1.

Tel. 943 76 24 91 / 76 38 40

imaltuna@sarenet.es

www.imaltuna.com



SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA

Bergarako ikastetxe publikoak

IRAILA



"Denborak hurrerarazi egin ninduen bergararren historiara"

IÑAKI DE MUJIKA / KIROL KAZETARIA
2002-09-20



"Luma Gorri Elkarteko oilaskoak kalitate handikoak dira"

MIGEL ARREGI / IRUDIXO BASERRIA
2002-09-13



Bergara KEren zilarrezko ezteiak

Bergara Kirol Elkartek 50. urteurrena bete zuela-eta, ospakizun berezia izan zen.

Osoko bilkuren aretoa jendez gainezka egon zen; hantxe izan ziren, besteak beste, Realeko, Eibarko eta Gipuzkoako Futbol Federazioko ordezkariak, 50 urteotan elkarteko presidente izandakoak eta elastiko mahoneroa jantzi duten jokalarari beterranoak. Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak ongierrria eman zien batutakoei, eta Bergara Kirol Elkartek 50 urteotan herriko kirolaren alde egindako lana gorai-patu zuen.

Bestalde, Bergara KEren historia jasotzen duen liburua aurkeztu zuten. Liburua Juan Luis Bikuña kazetariak idatzi zuen, eta hark esker-rrak eman zizkien argitaratzeko laguntza eman duten guztiei. /2002-09-27

HILEKOESALDIA

"Bergarako KEk garrantzi handia dauka; historian zehar egin duen ibilbidea ikusi besterik ez dago"

JUAN LUIS BIKUÑA / KAZETARIA
2002-09-20

HILEKODATUA

300

LABEGARAIETAKO ARETO FUTBOLEKO JOKALARIAK

Labegaraietako Areto Futbol Txapelketan 300 jokalarik eman zuten izena. Partiduak kiroldegian izaten dira. /2002-09-27

JARDUNEK ANTOLATUTAKO EKINTZAK

↑ Umeendako eta nagusiendako bertso eskolak antolatu zituen euskara elkarteak. /2002-09-13

UDAL IGERILEKUAK ITXITA

↓ Udako denboraldia amaitu ondoren, igerileku estaliak itxi egin zituzten, eta ez dituzte berriro zabalduko. /2002-09-06

AIPAGARRI



IÑAKI SAN JOSÉ
BKEko presidentea

Futbol Sailak presidente berria aukeratu zuen. Iñaki San José bigarren aldiz da presidente: 1986tik 1990era ere taldeko presidentea izan zen. /2002-09-20



ASIER GARITANO
Futbol jokalaria

2. B mailako Alacant taldeko golegile nagusia izan zen aurreko denboraldian. Hark sartutako golak Espaynol taldea kanporatu zuen Kopan. /2002-09-20



ENRIQUE SAN NICOLÁS
Entrenatzaile ohia

BKEko atletismoaren bultzatzaile nagusia izan zen 1960-1980 hamarkaden bitartean; atletismo taldea Estatuko onenetako izatera iritsi zen. /2002-09-27



iBARRALDE

Administrazio Zerbitzuak S.L.

**Zerga, lan eta kontabilitate zerbitzuak
Finken administrazioa.**

ELKARGOKIDE ZENB.: 25.068

Ibargarai 30ean zure zerbitzura

Tel.: 943 76 52 88. Faxa: 943 76 25 64

Zorionak eta urte berri on!

Mizpildi 8
943 76 12 32
BERGARA

Igande eta
jaiegunetan
zabalik



MIZPILDI




OKINDEGIA



Ondo hasi urte berria!

Matxiategi 1
943 76 72 73
BERGARA

Kafe
dastaketa!



Kanape erainsgarria

Zatoz
Masterreka 9ko
erakustokira!



'Aluminium' ohe artikulatuak





Saunier Duval



DICOMAN S.L.

San Lorentzo, 21
20570 Bergara
Laguntza teknikorako zerbitzu
ofizial baimendua
Tf. 943 76 06 61

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA



AGIRRE HORTZ KLINIKA

Nagore eta Alaitz Agirre odontologoak,
Gotzone Arkarazo higienista
eta Amaia Etxeberria harreragilea

- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Implanteak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Ibargarai, 9. 1-B
943 76 00 23
09:00-13:00 eta 17:00-21:00



RPS: 139/01

Ondo pasau Gabonak!

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENEAN **EAEko langabezia tasa baxuena, geurean**

INEMen azken datuen arabera, Arrasate zen EAEko langabezia tasa baxuena zuen herria (%3,24); segidan, Oñati (%3,57) eta Bergara (%3,97) zeuden.
2002-09-13


► EUSKAL HERRIAN **Autodeterminazioaren aldeko apustua**

EAE Espainiarekiko estatu aske atxikia egiteko asmoa plazaratu zuen lehendakariak. Urtebetean erreferenduma deituko zuela esan zuen.
2002-09-27

► MUNDUAN **Schröder, berriro Alemaniako kantziler**

Kristau-demokratek lortu zuten boto gehiago, baina Berdeen koalizioari esker, Gerhard Schröderrek jarraitu zuen Alemaniako presidente.
2002-09-22

ERREPIDEAK



Bergarako ekialdeko saihesbidea zabaldu zuten

Urte eta erdiko lanen ondoren, Bergarako ekialdeko saihesbidea zabaldu zuten. Oruesagasti base-ri inguruan hasi eta Teileriaraino doa errepide berria. Gerora Antzuola eta Arrasate aldera jarrai-pena izango duen Beasain-Durango korridorearen zatia da. Bergarako ekialdeko saihesbidearen eraikuntza lanak 2001eko martxoaren 2an hasi zituzten. /2002-09-27

KULTURA

Moises Azpiazu dantza taldeko arduradunak izendatu zituzten


Hogei urtez Moises Azpiazu dantza taldeko ardura izan ondoren, Dani Azpiazuk eta Noemi Larrañagak taldea lagatzea erabaki zuten, guraso elkarte batekin izandako arazoengatik. Arduradun berriak Amaia Agirre eta Maite Lazkano dira, taldeko ikasle izandakoak biak ere. /2002-09-20

UDALTZAINGOA

Udaltzaingoan, beste hiru agente eta bi zerbitzu gehiago

Beste hiru udaltzain hasi ziren lanean Bergarako Udaltzaingoan: Aitor Imaz zarauztarra, Unai Egaña zarauztarra eta Xabier Ansa lasarte-oriarra. Agenteez gainera, Udaltzaingoak bi zerbitzu gehiago izatea erabaki zuten: txakur arriskutsuen zaintza eta garabi zerbitzua. /2002-09-06

MUNDUKO DUATLOI TXAPELKETAN 3. SAILKATU ZEN /2002-09-20



ARITZ KORTABARRIA
TRIATLETA

“Austriako Iron Man triatloi proba handia egin nahi nuke”

Atsedean pixka bat hartu ondoren, entrenatzen hasiko da berriro. Datoren denboraldiari begira, Austriako Iron Man triatloi proba egin nahi luke Aritz Kortabarriak.

KULTURA

Eguraldi eta giro ezin hobea izan zen San Martin jaietan

Ekitaldi ugari izan ziren San Martin jaietan: musika, antzerkia, danborrada eta urteroko barazki, fruta, lore eta gazta lehiaketa ere egin zuten. Lehen saria irabazi zuten: barazkien sailean, Tomas Larrañaga Antzuolako Lapatza baserrikoa; frutaren atalean, Kontxita Izagirre, Antzu-

lako Bidaurre baserrikoa; gaztari dagokionez, Azpeitiko Belaus-tegi baserriko M^a Luisa Alberdik; lore moztuen sailean, berriz, Ube-rako Begoña Arteagak. Bestalde, Dantza Suelto Txapelketako XVIII. aldian 15 bikote aritu ziren; irabazleak Maite Lazkano eta Aitzol Ena izan ziren. /2002-09-20



Aitzol Ena eta Maite Lazkano dantzariak.

Pcphone21
Informática Telefonía Internet

Ibargarai Hiribidea, 20
943 769 458
20570 Bergara
atención al cliente 902 54 01 01

zorianak eta urte berri on

ELKAR fotokopiak

Arruriaga 1, behea. Tf. eta faxa 943 76 58 16.

Planoen handitzeak eta txikitzeak

Bulego materiala

Ploteoa eta Ecaweo

Fax publikoa

Plastifikazioak DIN A4/A3 eta posterrak

Enkuadernazioak

Koloretako fotokopiak

Urte berri on guztioi!

URRIA




*"Bizi kalitatea gizakion
asmakizun kulturala da,
zoriontasuna bezala"*

ENRIQUE ARRIOLA / GERIATRA
2002-10-11



*"Igerileku berriekin
zerbitzu integrala eskaini
nahi zaie herritarrei"*

IÑAKI UGARTEBURU / KIROL TENIKARIA
2002-10-25



Erretiratuen Kultur Hamabostaldiko Idazlan Lehiaketa

Erretiratuek deitutako Idazlan Lehiaketako sari banaketa egin zuten, Novedadesen. Guztira, 80 aurkeztu ziren lehiaketara. Lehen Hezkuntzako artean, Ander Iturbe, Xabier Arantzeta eta Julian Ramírez de Okariz eta Amaia Azpeitia izan ziren irabazleak, eta Bigarren Hezkuntzako en mailan, Garazi Arantzabal eta Oihana Aldazabal eta Raisa Maniega. /2002-10-31

HILEKOESALDIA

**"Erretiratuengan
arreta handiagoa
jarri behar
dugu, gizartea
zahartzen
ari delako"**

AGUSTIN OZAMIZ / SOZIOLOGOA
2002-10-25

HILEKODATUA

9

TXAKURREN GOROTZAK BOTATZEKO ZAKARRONTZIAK

Txakur Hezkuntzarako Kanpaina hasi zen; kanpainaren helburu nagusia txakurren jabeak kontzientziatzea zen. /2002-10-04


LANGABEENDAKO IKASTAROAK MIGUEL ALTUNAN

↑ Ikastaro horien helburua zen langabezian dauden guztiei lan esparruan sartzeko aukera eskaintzea. /2002-10-04

DEBA IBAIA, GIPUZKOAKO KUTSATUENA


↓ Deba ibaiko kutsadura parametro kimikoetan jaitsi arren, Gipuzkoako zikineria izaten jarraitzen du. /2002-10-11

AIPAGARRI



EDURNE AZUARA
Aktorea

Aktore bergararra GOITBko *Gatza eta berakatz*a saioan Biko Bokategiko errezetak aurkezten hasi zen urrian; ekainera arte jardungo du bertan. /2002-10-25



UNAI ZABARTE
Shotokan taldekoa

Gerriko beltzik ez duten karatekei zuzendutako Gipuzkoako Txapelketan izan zen. Unai Zabarte katetan lehena izan zen, kadete mailan. /2002-10-25



MAITE MUÑOA
Medikua

Kirola egiteko 30 arrazoiliburua kale-ratu zuen, senararekin batera. Kirolarekiko motibazioa pizteko helburuarekin argitaratu zuen liburua. /2002-10-18

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea



Tf. 943 76 56 88

Odontologia orokorra

Inplanteak

Ortodontzia

Ahoko zirugia

Fraiskoizuri 5A, I-D. BERGARA

Zorionak eta urte berri on!



SANTOS

Ondo igaro Gabon jaiak!

Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA. Tf. 943 76 26 10

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENEAN

Gerra Zibileko bi gorpuzki aurkitu

Bedoña auzoko kobazulo baten Gerra Zibilean errepresaliatutako bi gizonen gorpuzkiak aurkitu zituzten. Aranzadi Elkartekoek egin zuten indusketa.

2002-10-03

► EUSKAL HERRIAN

Espainiako Narratiba saria, getxotar bati

Unai Elorriaga 29 urteko getxotarrak irabazi zuen Espainiako Kultura Ministerioak emandako 2002 Narratiba saria, *SPrako tranbia* nobelarekin.

2002-10-08

► MUNDUAN

187 turista, hilik, Al-Qaedaren eraso baten

Indonesiako Bali uharterko gune turistiko bateko dantza-leku baten bonba ipini zuen Al-Qaeda taldeak. 187 turista hil ziren, gehienak australiarak.

2002-10-12

AZPIEGITURAK



AHTren behin betiko trazatua kaleratu zuten

Behin betiko Trenbide Sarearen Lurraldeko Sektore Plana kaleratu zuen Jaurilaritzak. Abiadura Handiko Trenak EAEn barrena izango duen behin betiko trazatua jasotzen du planak. Angiozarko bailarari dagokionez, aurreikusitakoa baino beherago joango da trazatua; horren ondorioz, Eduegi baserriaren gain-gainetik igaroko da trenak. /2002-10-25

KIROLA

Clementek futbolzale ugari batu zituen Gure Ametsan

Ironiaz eta argitasunez, Javier Clementek futbolaren gainean jardun zuen Gure Ametsa elkartearekin. Berbaldian ikusmina piztu zuen, eta futbolzale ugari batu zen San Antonioko elkartearekin. Juan Luis Larrea Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentea eta *Gaztelu* ere izan ziren. /2002-10-31

ENPRESA

LABek bazterketa sindikala salatu zuen Acelaria lantegian

LABeko sail sindikalak Acelaria enpresan bazterketa sindikala gertatzen dela salatu zuen. Salaketa egiteko hainbat ebidentzia zituztela adierazi zuten: mailaz igotzeko zuzendaritzak erabiltzen duen politika diskriminatzailea; LABekoak baztertu, eta ELAkoak faboratu. /2002-10-18

KULTUR HAMABOSTALDIAN KARTEL LEHIAKETA IRABAZI /2002-10-11



ELISABET EGUREN
DISEINU GRAFIKOZALEA

“Jasotako dirua ordenagailua erosteko inbertituko dut”

Erretiratuen Kultur Hamabostaldirako antolatutako Kartel Lehiaketa irabazteaz arrotzen; jasotako dirua ordenagailua erosteko inbertituko duela baieztatu zigun.

KULTURA

Jardun euskara elkartekoak, Arrizuriaga jauregian

Begarako Udalak Arrizuriaga jauregiko hainbat gela utzi zituzten Jardun euskara elkartearekin, eta, hortaz, aurtengo ikasturteko jarduerak hantxe egingo dituzte: aste bukaerako aisialdi programa, pandero eta soinu ikastaroak eta bertso eskolak, besteak beste. Jarduneko

begiraleen laguntzarekin, zapatu eta domeka arratsaldeak lagun artean jolasean pasatzeko aukera daukate. Bestalde, Jardun elkarteak bulegoek Errotalde jauregian jarraituko dute; hortaz, edozein argibide jaso nahi izanez gero hara jo beharko dute herriarrek. /2002-10-25



Aste bukaerako programako gazteak.

eusko
alkartasuna

www.euskoalkartasuna.org

Gabon zorientsuak
eta urte berri on
herritar guztioi!

GA
Gazte Abertzaleak

Barrenkalea 18
BERGARA
Telefona eta faxa: 943 76 26 81

www.gazteabertzaleak.org

AZAROA



"Oso gutxi errespetatzen ditugu lorategiak; orain hasi gara errespetatzen"

J. RAMON BADIOLA / UDAL LOREZAINA
2002-11-08



"Mendekotasuna duten pertsonak gehituz doazenez, itxaron-zerrenda itzela da"

A. GOIKOETXEA / MIZPIRUALDEKOA
2002-11-22



Bergarako Herri Mugimenduen Hamabostaldia antolatu zuten

Bergarako hamar taldek antolatu zuten Hamabostaldia: EHEk, AHT Gelditu! Elkarlanak, Emakume taldeak, Astindu aldizkariak, Komite Internazionalistek, Etxerat-ek, Bergarako Gazteek, Bai Euskal Herriari-k, Gazte Asanbladak eta Txapa irratiak. Taldeen arteko komunikazioa bul-tzatzea eta sendotzea dute helburu, eta horretarako, ekitaldi ugari antolatu zituzten. /2002-11-29

HILEKOESALDIA

"2003ko urtarril edo otsailean kirolgune berria egiteko lanak adjudikatzeko asmoa daukagu"

VICTORIANO GALLASTEGI / ALKATEA
2002-11-22

HILEKODATUA

24

TXAPA IRRATIAREN EMISIO ORDUAK

Denboraldi berrirako programazioa aurkeztu zuen Txapak. Hogei saio izango dira, eta 24 orduz emitituko dute. /2002-11-22

UNED-EK ETA SAN JOXEPEK IKASTAROAK ANTOLATU

↑ Heziketa Iraunkorreko ikastaroen barruan hainbat ikastaro iragarri zituzten 2003. urterako. /2002-11-29

IBARGARAI INGURUAN EGINDAKO LAPURRETAK

↓ Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren esanetan, Ibargarai inguruko zazpi etxetan lapurreta egin zuten. /2002-11-22

AIPAGARRI



JESUS ALBERDI
Bertsolaria



IBAN FRANCO
Futbol jokalaria



YOLANDA GUILLÉN
Ispilu-ko zuzendaria

Egileor bezala eza-gunagoa da Jesus, eta Jardun Elkarrean antolatutako bertso jaialdiaren barruan egin zioten omenaldia. 400 lagun batu ziren. /2002-11-29

Eibarren hiru urte eman eta gero, jokalaria bergararra 2. B mailako Gernika futbol taldera joan zen, mailari eustearren. Urtebeterako fitxatu dute Iban. /2002-11-22

Yolanda Ispilu antzerki taldeko zuzendaria da. Hasi-berriak teleailean medikua izan zen, eta azaroaren hasieran, Goenkale-tik deitu zioten. /2002-11-15



Urte berri on!

Barrenkalea 35
Tel. eta faxa: 943 76 58 05

BERRIA!
ZURE KAMERA DIGITALEKO ARGAZKIAK PAPEREAN



Iturkintza • Berogintza • Bainuak

Laskurain

Barrenkalea 35

URTE BERRI ON!

☎ 943 76 24 89



**Zorionak eta
urte berri on
herritar
guztioi!**



BERGARAKO UDALA

BERGARA

Kafea-Pentsioa



EGUNERO GOIZEKO 7:00etatik ZABALIK
Bidekurutzeta 34, BERGARA 943 76 47 23

Ondo pasau Gabonak!



Logelak



Kafetegia

FIAT

Markiegi

AUTOAK



Leizeaga, 1 • Posta kutxa 185, San Lorenzo industrialdea • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 35 09 • Faxe: 943 76 56 76



50 urte baino gehiagoko
esperientzia
eta profesionaltasuna
egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural,
propano eta butano eta
berogailu instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak.
Bainuko altzariak.

Jai zorientsuak izan
ditzazuela!

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA
BAINURAKO ALTZARIAK

Larrañaga
Eguren, B. M.

Juan XXIII
Tf. eta Faxe 943 76 11 88
20.570 BERGARA

ALBISTEIZANZEN

ATLETISMOA

► DEBAGOIENEAN
**EHNA egiteko aukera
Debagoiengan**

Euskal Herriko Naziotasun Aitorpen agiria egiteko bulegoa zabaldu zuten Bergaran. Antzuolan ere badago EHNA ateratzeko aukera.

2002-11-02

► EUSKAL HERRIAN
**Reala, historia egiten
Liga Txapelketan**

Deportiboren aurka berdindu eta gero, Realak bere historiako Liga hasierarik onena lortu zuen: lehen postuan eta partidurik galdu barik.

2002-11-10

► MUNDUAN
**Marea beltz larria
Galiziako kostaldean**

Fuel-olioz betetako *Prestige* itsasontzia Galiziako kostaldean hondoratu zen, eta, gerora, inoiz izan den marea beltz larriena eragin zuen.

2002-11-13



Bergarako 20 korrikalarik amaitu zuten Donostiako Maratoia

Guztira, 2.000 partaide izan ziren Donostiako Maratoiaren 25. urtemugan. Herriko 20 korrikalarik bukatu zuten proba; horien artean, aurten ere Roberto Zurro izan zen onena. Bestalde, Bixente Pagaldai protagonista nagusietakoa izan genuen, 25. aldiz amaitu zuen-eta Maratoia. Hura eta Zubizarreta pasaiatarra dira aldi guztietan parte hartu duten bakarrak. /2002-11-29

KIROLA

**Shotokan taldekoak,
bikain, Gipuzkoako
Karate Txapelketan**

Kadete eta gazte mailetakoa Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen. Shotokaneakoak bikain aritu ziren: Miren Laskurain kumitentan lehena eta katetan 3.a izan zen, Raquel Blanco katetan nagusitu eta kumitentan 3. postua eskuratu zuen, eta Jon González 2.a izan zen kumitentan. /2002-11-15

GIZARTEA

**Herritar askok agurtu
zuten azkenekoz
On Serafin Esnaola**

On Serafin Esnaola abadea hil zen, Donostian, 87 urte zituela. Bergarako San Pedro elizan ordenatu zen abade, eta hemen 28 urtez jardun ondoren, 1992an, erretiratu egin zen. Urte horietan egindako lagun ugari hurbildu ziren haren hileta-elizkizunetara, Donostiara. /2002-11-08

BEHOBIA-DONOSTIA PROBAN HERRIKO ONENA IZAN ZEN /2002-11-15



**“Datorren urtean,
agian, Donostiako
Maratoia egingo dut”**

Urte osoan korrika ibili eta Behobia-Donostia proban Bergarako onena izan ondoren, atsedean hartzeko gogoa dauka. Etorkizunean, Donostiako Maratoia prestatzeko asmoa du.

JON ARANTZABAL
TRINTXERPE TALDEKO KORRIKALARIA

GIZARTEA

**KZGunea zabaldu zuten Irizar
jauregiko bigarren solairuan**

Irizar jauregiko bigarren solairuan jarri zuten KZGunea. Herriarren artean Internet ezagutzera emateko eta erabilera sustatzeko helburua duen doako zentroa da. Bi gune bereizi ditu: batean, 12 ordenagailu daude ikastaroak emateko, eta bestean, zortzi ordenagailu erabilera libre-

rako. Jaurlearitzak abian jarritako Euskadi Informazio Gizartearen Planaren barruan dago KZGuneen ekimena. Batez ere, hiru multzori zuzenduta dago KZGunea: etxeandreei, 65 urtetik gorakoei eta iraupen luzeko langabeei. Baina 16 urtetik gorakoei ere erabil dezakete. /2002-11-22

EHNA

**EHNA tramitatzeko
bulegoa ireki zuten
Kruz Gallastegin**

EHNA (Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena) egiteko Udalbiltzak Kruz Gallastegi 7an atondutako bulegoa aurkeztu zuen Bai Euskal Herriari taldeak. Herriko zinegotziek jarduten dute bulegoan, txandaka, eta haiek arduratzen dira tramitazio lanez. /2002-11-08



Goiena Komunikazio Zerbitzuek eskerrak eman nahi dizkizue urtean zehar zuen laguntza eman diguzuen irakurle, kolaboratzaile eta bezero guztioi.

URTE BERRI ON!

SPORTLAND FORUM SHOPS
**LEZ HUTS EGIN
KIROLA OPARITU**
SPORTLAND ARRASATE, Garibal Etorbidea, 2-6 Gipuzkoa



TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.



Urte berri on!

Urteaga 37 • Posta Kutxa 165
Tel.: 943 76 12 50 - 943 76 18 38
Faxa: 943 76 47 51

20570 BERGARA

seatleon

ABENDUA




"Igerilekuak itxi zituztenetik, oso baldintza eskasetan entrenatzen ari gara"

AMAIA ANDUEZA / IGERI ELKARTEKOA
2000-12-13



"Izugarria da Galiziako arrantzaleen indarra hondamendiaren aurrean"

ANDONI ETXEBARRIA / IRAKASLEA
2002-12-13



Kanpoko igerileku txikia estaltzea erabaki zuen Udalak

Udalak kanpoko igerileku txikia estaltzeko erabakia hartu zuen. Udaleko iturrien arabera, 2003ko otsailean, kanpoko igerileku txikia (25x10 metroko neurria eta 1,20 eta 0,80 metro bitarteko sakonera) erabiltzeko moduan izango da. Igerilekua estaltzeko egitura metalikoa eta toldoa eta aurre-fabrikatutako aldagelak jartzeak 222.400 euro inguruko aurrekontua izango du. /2002-12-05

HILEKODIALDIA

"Kirolgune berriko lanak 2007an bukatuko dira. Punta-puntako instalazioak izango ditugu"

VICTORIANO GALLASTEGI/ALKATEA
2002-12-20

HILEKODATUA

37

MILIOI PEZETA KANPOKO IGERILEKUA ESTALTZEKO

Udalak 222.400 euro bideratuko ditu Agorrosingo kanpoko igerileku txikia estaltzeko (37 milioi pezeta). /2002-12-05

HERRI MUGIMENDUAREN HAMABOSTALDIA

↑ Herriko hamar kolektibok, lankidetzan, hainbat ekitaldi antolatu zituzten abenduaren 2tik 15era artean. /2002-12-02

AUTOBUS GELTOKI BERRIA

↓ Orain arte geltokia egon den lekuan etxebizitzak egiten hasi dira, eta geltokia Ibargarain jarri dute. /2000-12-01


AIPAGARRI



ASIER ALTUNA
Zinemagilea



LEIRE LASA
Gimnasta



IÑIGO AIZPURUA
'Basetxea'-n lehiakide

Zinebin, Bilboko Zine Dokumental eta Laburmetraia Nazioarteko Zinemaldian, Euskal Zinemagintzaren sari nagusia jaso zuen, *Topeka* lanarekin. /2002-12-01

Eibarko Ipurua taldearekin zilarrezko domina lortu zuen Murtzian jokaturako Espainiako Gimnasia Erritmiko Txapelketan. Hamasei urte ditu. /2000-12-08

Itziarren eta Angiozarren bizi den 21 urteko gaztea *Basetxea* saioko finalistetako bat izan zen. Hilabete eman zuen saioa grabatzen, Etxalarren. /2000-12-18



ZARAITZU

Artisau-produktuak

ZABALIK Fraiskoizuri plazako 3an. Telefonoa: 943 76 46 64

Zorionak herritar guztioi!

Garaje Murillo

Auto konponketak orokorrean

Zorionak eta urte berri on!

Leizeaga, 4 • 20570 BERGARA (Gipuzkoa) • Tel.: 943 76 13 84



ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENEAN

Euri-jasa larriarekin hasi genuen abendua

Urteko asterik euritsuena izan zen abendu hasierakoa: bost egunean 153,5 l/m²-ko jaso ziren. Bergaran bi lur-jauzi izan ziren hilaren 5ean.
2002-12-05

► EUSKAL HERRIAN

ETAk Ibarretxeren plana gaitzetsi zuen

Egunkarietara bidalitako agiri baten, ETAk esan zuen Ibarretxeren autodeterminazio planak "gerra eta Espainiari-ko mendekotasuna" ekarriko dituela.
2002-12-05

► MUNDUAN

Iraken armamentua, ikusmiran

Irakeko gobernuak 11.807 orriko txostena aurkeztu zien Nazio Batuei, eta "arma konbentzionalak" bakarrik zituela aitortu zuen.
2002-12-07

ASTEKO BERRIAK



Garraioarendako gune logistikoa Olan

Victoriano Gallastegi alkatearen esanetan, Ipiñarri eta Kukubaso isurtegiaren inguruko lurretan garraioarekin lotutako gune logistikoa jarriko dute, seguruenik. Aurre-proiektua eginda dago, eta, gune logistikoaz gain, industria garapenerako lursailak ere zehazten ditu. Biak kontuan hartuta, 148.000 m²-z ari gara. Erdia, gutxi gorabehera, industria garapenerako izango da eta beste erdia, gune logistikorako. Gune logistikoari dagozkion 71.000 m²-ak bitan banatuta egongo dira: batetik, Debagoieneko kamioiak lagatzeko lekua izango da; eta, bestetik, garraioarekin lotutako hainbat zerbitzu jartzeko: gasolindegia, jatetxea edo lantegi mekanikoak, esaterako. /M.B.

ASTEKO BERRIAK

Bergarako Herri Mugimendua Hamabostaldia

Herriko hamar kolektibok antolatuta zuten Hamabostaldia. Abenduaren 2an hasi eta 15era, hainbat ekitaldi izan ziren: musika, berbaldiak eta erakusketak, besteak beste. Taldeen arteko lan-kidetzak bultzatzea zuten helburu, eta bakoitzaren aldarrikapena kaleratzea. /2002-12-02

ASTEKO BERRIAK

Torturaren aurkako kanpaina jarri zuten abian hainbat lagunek

Bergara Torturaren Aurka izeneko sentsibilizazio kanpaina jarri zuten abian hainbat herritarrek. Helburua tortura desagerraraztea den arren, epe motzerako helburuari ekin zioten lehenik, alegia, herritarren artean torturaren aurkako kontzientzia hedatzeari. /2002-12-09



Jose Luis Elkorori elkartasuna adieraz- teko mobilizazioak

Jose Luis Elkorori elkartasuna adierazteko eta Euskal Herriarendako demokrazia eskatzeko itxialdiak egin zituzten hainbat herritarrek Miguel Altunan eta udaletxean.

HOGETA BOST LAGUNEN ITXIALDIA UDALETXEAN /2000-12-13

ZAHARRAK BERRI

San Joxepe Elkarteko Abesbatza, Gipuzkoako Topaketan

San Joxepe Abesbatzak parte hartu zuen Gipuzkoako Erretiratuaren Abesbatzen Topaketan, Legazpin. Dozena bat talde batu ziren. San Joxepe Abesbatza 1992ko azaroan sortu zen, eta 50 lagun ari dira taldean. Jose Patxi Azkarate dugu Abesbatzako zuzendaria. /2000-12-18

PILOTA

Larrañaga-Altuna bikotea eta Martín finalerako sailkatu

Asier Larrañaga-Ibai Altuna bikotea Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako finalerako sailkatu zen, bigarren mailako gazteen mailan. Eta Gorka Martinek seniorretako lehen mailako finala jokatu zuen, Eibar taldearekin. Finalak aste bukaeran jokatze-koak ziren, Oñatin. /2000-12-14

KULTURA

Taun-Taun taldea, Argentinan, 'Kont Arte' lanarekin

Taun-Taun antzerki taldeak Rosarioko *Experimenta 5 teatro* izeneko nazioarteko topaketan hartu zuen parte, abenduaren 7tik 13ra bitartean. Taun-Taunekoek Joan Brossaren unibertsio poetikoan oinarritutako *Kont Arte* antzezlanaren eraman zuten Argentinara. /2002-12-07



LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA
Tfnoa: 943 76 10 55
Faxa: 943 76 20 29

Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu

URTE BERRIRAKO EGITASMOAK

Hastear gauden 2003. urteak zer ekarriko ote digu? Galdera zaila da erantzuten. Hala ere, badira herrian hainbat asmo edo proiektu aurten edo lehenagotik abian daudenak. Horieta bost gai aukeratu ditugu guk eta

orriotara ekarri, 2003an barrena zelan garatuko diren azaltzeko asmoz. Herriarendako nolabaiteko garrantzia duten bost gai dira: gaztetxea berritzeko lanak, San Antonion eraikitzen ari diren babes ofizialeko

etxebizitzak, Eibar-Gasteiz autobidea, maiatzaren 25eko Udal Hauteskundeak eta Agorrosingo kirolgune berria. Proiektu horien guztien gainean hara zer egiteko asmoa dagoen datorren urtean.



San Antonion etxebizitza babestuak aurrera

San Antonion eraikitzen ari diren etxebizitza babestuei dagokienez, lehenengo blokea amaitu, eta martxoaren 21ean zozketatu zituzten bloke horretako etxebizitzaren erdia; bederatzi etxebizitza sozial, hain justu ere. Guztira, hiru bloke eraikiko dituzte, eta bloke bakoitzak 18 etxebizitza izango ditu. Bigarren blokea eraikitzen ere aurten hasi dira, eta datorren urtean barrena amaitzea espero dute. Bigarren eta hirugarren bloketako etxeak babes ofizialekoak izango dira./M.B.



Gaztetxea berritzeko lanak datorren urtean hasiko dituzte

Gaztetxea berritu eta egokitzeko proiektua 2002. urtean barrena egin dute. Horrez gain, lanak ere esleitu dituzte, Arregi eraikuntza enpresari, hain justu. Gaztetxea berritzeko lanek 420.700 euro inguruko aurrekontua dute, eta datorren urtean hasiko dituzte, data zehaztu barik egon arren.

Kartzela zaharrean, hau da, ekitaldi aretoan, aldaketa gutxi egingo dituzte. Helburu nagusia da araudiak eskatzen dituen segurtasun neurriak betetzeko moduan jartzea. Obra handienak kartzelariaren etxean egingo dituzte; eraikina guztiz konponduko dute: tabernak behe solairuan jarraituko du eta lehen solairuan erabilera askotariko gelak egingo dituzte. Txapa Irratia han jartzeko asmoa ere badago. Bestalde, igogailua, berogailua eta beste hainbat hobekuntza ere izango ditu./M.B.


Nerea

Lentzeria • Kortse-denda • Bainujantziak

Simon Arrieta plaza 1 Tf. 943 76 19 52


Ondo pasau
Gabonak!






Bergara eta Eibar arteko A-1 autobide zati bat, apirilean zabalik

Eibar-Gasteiz autobidea 2007ko hasierarako amaituta egotea espero da, baina Bergara eta Eibar arteko zatia datorren urteko apirilean zabalduko dute. Bi urte barru, berriz, Epele raino zabalduko dute A-1 autobidea. Gipuzkoako zatian 30 kilometro luze izango da, eta zati hori egiteko 500 milioi euro bideratuko ditu Diputazioak (85.000 milioi pezeta). Gaur egun, Epeletik Azitainera arteko zatian ari dira lanean, 15,3 kilometroko tartean, hain zuzen ere. Bestalde, Gipuzkoako Batzarrak onartu du dagoeneko autobideak izango duen bidesaria: Eibar-Gasteiz ibilbidea egiteak 3,28 euro balioko du; Arrasate-Eibar ibilbidea, 1,2 euro; eta Bergara-Arrasate ibilbidea, 0,28 euro. Argazkian, Ipiñarriko zubibidea, Arrasate eta Eibar arteko luzeena (640 m) . /EDU MENDIBIL



Udal hauteskundeak maiatzaren 25ean

Datorren urtean, maiatzaren 25ean, udal hauteskundeak izango ditugu. Alderdiak zerrendak osatzeko lanetan dira dagoeneko, baina oraindik ez dute aditzera eman zerrendaburuak zeintzuk izango diren. Victoriano Gallastegi alkatea (EAJ) aurkeztuko ote den zalantzan dago, eta gainerako alderdiek ere ez dute ezer aurreratu nahi. Azken hauteskundeetan, Legebiltzarrerako 2001eko maiatzaren 13an egin zirenetan, 12.734 herritarrek izan zuten botoa emateko aukera. /E.M.



Agorrosingo kirolgune berriko proiektua maiatzean izango da abian

Bergarako Udalak aditzera eman duenez, 2003ko maiatzean jarriko dute abian Agorrosingo kirolgune berria egiteko proiektua. Jakingo duenez, Bergarako Udalak Alvaro Pérez de Amezaga eta Jorge Muntaniola arkitektoek aurkeztutako proiektua aukeratu zuen. Aurrekontua 10.704.200 euro ingurukoa da (1.781.000.000 pezeta), eta lan guztiak 2007. urterako amaituta egotea espero dute. Edozelan ere, Udalak ez daki oraindik proiektua finantzatzeko zer-nolako dirulaguntzak izango dituen. Lanen adjudikazioa egin ondoren, lehen fasea, esan bezala, maiatzean jarriko dute abian, eta, besteak beste, bi igerileku estali (21x25 m eta 20x5,5 m), aldagelak, gimnasioa, squasherako frontoia, haurtzaindegia eta kafetegi-jatetxea eraikiko dituzte, 6.915.900 euroko aurrekontuarekin. Bigarren fasean jolas igeritokia (neguan estalkia izango duena) eta hirugarren fasean Ipintzako futbol zelaiak (belar artifizialekoa) egingo dituzte. Lanek irauten duten bitartean, Bergarako Udalak kanpoko igerileku txikia estali egingo du. /E.M.

ETXE BERRIA

ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON!

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA-OPARIAK

Egin zure opariak Etxeberrian erosiz eta parte hartu **1.200 euro** eta **600 euroko** erosketa-txartelen zozketan

Bidekurutzeta 16. BERGARA. Tel. 943 76 23 94 - 76 12 65

ERRETRATU ZAHARRA



Jaiotza biziduna udaletxean, 1966. urtean

Garai baten, jaiotza biziduna izaten zen udaletxeko sarreran. Horren lekuko, goiko argazkia. Erretratua 1966. urteko Gabonetan ateratakoa da. Urte hartan, Errege bezperan, Jesusen jaiotzaren irudikapena egin zuten udaletxeko sarreran, osoko bilkuren aretora igotzeko dauden eskaileren ondoan, hain zuzen ere.

Antza denez, lauzpabost urtean egin zuten jaiotza biziduna udaletxean, nahiz eta pare bat urtean San Pedroko elizpean izan zen, Bittor Alberdi *Satorretxe*-ren esanetan. Hark esan digunez, herritar ugari hurbiltzen zen jaiotza ikustera.

Errege bezperan, kabalgatak herri barruan ibilbidea egiten zuen bitartean, hainbat herritarrek Jesusen

jaiotza antzezten zuten, asto eta guzti, argazkian ikusten denez. Erretratuan, ezkerretik eskumara: Bittor Alberdi *Satorretxe* (*artzaina*), Maria Gloria Etxaniz (*Maria Amabirjina*), Pili Sampietro (*Jesus haurtxoa*) eta Markos Gabilondo (*San Jose*).

Argazkia: BUA (Juan Idigoras fondoan)



zumelaga
JATETXEA

*Jai zoriontsuak izan
ditzazuela denok!*

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

60 urte zuen zerbitzura!



Urte berri on.





Zure bidalketa zerbitzua Europa osora iristen da.



Jakin, badakizu, konfiantzaz utz ditzakezula gure esku Espainia eta Portugalerako bidalketak. Nahi al duzu zerbitzu hau bera Europa osorako?

Euro Expresekin dagoeneko baduzu: izan ere, paketeak garraiatzeko eta banatzeko Europako merkatu bakoitzeko liderrek osaturiko enpresa-sarea baita. Gisa horretan, zure bidalketa doan lekura doala ere, inguruak ongien ezagutzen dituztenek egingo dizute zerbitzua.

Guipuzcoana Euro Expresekook kalitate/prezio erlazio bikainaz garraiatzen ditugu paketeak eta paletak. Hortaz, zergatik ez duzu gure esku uzten Europara zuzenduko duzun hurrengo bidalketa?

www.guipuzcoana.com

Harremanetarako: 943 763 642 - San Juan Erreka 33, E-20570 Bergara - bergara@guipuzcoana.com

Ezagutza, bertakoa. Esperientzia, Europa-mailakoa.

